

# GUaiXe.eus



**Maialen Aramendia**  
Tafallan irabazle



Kirolak >> 12

**21. Arbizuko duatloia** larunbatean jokatu da, 15:30etik aurrera. 153 duatletek eman dute izena. 10:00etan haurrak ariko dira



Kirolak >> 13



## Otsoportilloko omenaldirako hitzarmena >> 3



**Sexgunea,** sexualitateari buruzko udal zerbitzua >> 3



**Haize Berriak** banda musika eskolarekin batera >> 15



**Idoia Granizok** Azkue sariketan bi sari eskuratu ditu >> 14

**Sakanaoptika**  
Travesia Intxostia 10 · 31800 Altsasu  
T: 948 563 124 · www.optikasakana.com

**2x1**

**Betaurrekoak** progresiboak eta eguzkitakoak barne

kontsumitu promozioan dauden modeloak

Uztailak 31ra arteko eskaintza Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

### Uxue

Izeba Lurdesen partez, ZORIONAK eta muxu haundi bat!

### Uxue

Aitatxoren partez, 12 muxu goxo, politte!

### Igor Artieda

ZORIONAK aita, mai-tia eta lagun zoragarria!  
Beste urte bat bete duzu eta gero eta energia gehio! Nola egiten duzu? 40 urteko krisia? Kar, kar, kar. Musus AMZ. Etxekook!

### Olatz Aldaz

ZORIONAK gure zaïndari!!! Ongi pasa eguna fridayista. Asko maite zaitugu. Fridayista familia.

### Olatz Aldaz

ZORIONAK!!! Dagoeneko 38 urte!!! Ez ahaztu inoiz, asko, asko, askoooo... maite zaitugula!!! Etxekook

Urdiaingo Urriztitik (igerilekuak). Gurasoen Euskara Batzordea.

### Erakusketak

**Oroimenaren begirada arte-terapiaren ikuspuntutik.** Apirilaren 2ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Ixildutako emakumeak.** Martxoan Iurtzungo osasun etxean.

### Hitzaldiak

**Brigaden aurkezpena eta Sardinia brigadistak.** Martxoaren 24an, ostiralean, 19:30ean Iturmendiko Ximona gaztetxean. Askapena.

**Konfiantza eta errespetuzko komunikazioa.** Martxoaren 28an, asteartean, 17:00etan Altsasuko Txioka haur ikastolako ikus-entzunezko gelan. **Familiendako prestakuntza, Kabi proiektua.**

### Tailerrak

**Serigrafia, tote bag.** Martxoaren 24an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Bakaikuko euskerian ikastarua.** Martxoaren 24an, ostiralean, 18:30etik 19:30era Bakaikuko udaletxeko goiko aretoa.

**Garagardoa egiten ikasten.** Martxoaren 25ean eta 26an, larunbatean eta igandean, Etxarri Aranazko gaztetxean.

**Erasoa ekiditeko eta behin gertatu denean zer egin dezakegun jakiteko aholkuak.** Martxoaren 28an, asteartean, 18:00etatik 19:30era Uharteko Arakillo udaletxean. Belen Perez de Prado. **Laguntza programako teknikaria. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.**

**Familia ikastarua.** Martxoaren 27an,

astelehenean, 17:00etan Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan. LH eta DBHko gurasoendako. **Izena emateko 948 562 951 edo isabel@inigoaritz.eus**

### Bestelakoak

**Ikusi-makusi.** Martxoaren 26an, igandean, 17:00etan Lakuntzako kultur etxean.

### Deialdiak

**Altsasukoak aske.** Martxoaren 24an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

**Carlos Couso parlamentariarekin topaketa.** Martxoaren 24an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikineko 1. solairuko 2. gelan. **Altsasuko Ahal Dugu.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 24an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Josu Zabala Salegi. Egia jakin nahi dugu.** Martxoaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Galderaren bila!** Martxoaren 26an, igandean, 12:00etan Lakuntzako kultur etxean. **Gure Esku Dago.**

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Martxoaren 26an, igandean, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Plazan estalope bat egiten dugu? Non?** Martxoaren 30ean, ostegunetan, 17:30ean Etxarri Aranazko udaletxean.

## Marsuak

# 24-30

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Oibarreko abesbatza.** Martxoaren 25ean, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

**Udaberriko jaialdia.** Martxoaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Haize Berriak banda eta Altsasuko Musika eta Dantza Eskola.

**Erlitio-musika.** Martxoaren 25ean, larunbatean, 20:30 Altsasuko elizan. **Lautada abesbatza.**

### Antzerkia

**El banquete.** Martxoaren 24an, ostiralean, 20:00etan eta 22:30ean; martxoaren 25ean, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 26an, igandean, 19:00etan Iurtzungo kultur etxean. **Iurtzungo antzerki tailerra.**

**Chef chof.** Martxoaren 25ean, larunbatean, 17:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Trokolo. Euskaraz.**

### Ipuin kontalaria

**Ines Bengoa.** Martxoaren 24an, ostiralean, 18:00etan Lakuntzako

kultur etxean.

**Ipuin kontalaria.** Martxoaren 30ean, ostegunetan, 17:30ean Etxarri Aranazko liburutegian.

### Dokumentalak

**Motxila 21, live, zuzenean, en vivo.** Martxoaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiako kultur etxean.



### Zinema

**Las estaciones.** Martxoaren 24an,

ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Lo que de verdad importa.** Martxoaren 24an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 26an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Bat Man, la lego película.** Martxoaren 26an, domekan, 12:00etan eta 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**50 sombras más oscuras.** Martxoaren 30ean, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Izagako haitzak.** Martxoaren 26an, domekan, 7:00etan Olatzagutiatik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Urritzola-Altsasu (88 km).** Martxoaren 25ean, larunbatean, 10:00etan Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

**Larregoikoko gaina (57 km).** Martxoaren 26an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinetik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Irteerak

**Bernoako galtzada.** Martxoaren 25ean, larunbatean, 15:30ean

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Azkue sariak jaso dituen Idoia Granizo Uribarrena.
- Ikasle Abertzaleko kide batekin atzoko grebaz.
- Otsoportilloko omenaldia antolatzeke udalen hitzarmena.

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

www.guaixe.eus-eko inkesta:

Altsasun 5. edukiontziaekin urte bukararako %60 birziklatzeko helburua lortuko da?

Bai..... 4 (%26,67)  
 Gutxiatik, ez..... 0 (%0,00)  
 Erdi bidean geldituko da..... 1 (%6,67)  
 Ez..... 10 (66,67)

ezkaatza &gt;&gt;

## SAKANA

## Otsoportilloko omenaldiak badu antolakuntzarako hitzarmena

**1936ko estatu kolpearen ondorengo Sakanako errepresaliatuak Otsoportillon omenduko dira eta omenaldia 14 udalen artean antolatuko dute**

Frankisten estatu kolpearen ondorioz eraildako omenezko ekitaldia egin da Otsoportillon irailaren aurreneko igandean 1980tik. Etxarri Aranazko Udalak eta eraildako senideak hasi ziren hura antolatzen. Joan den urtea berezia izan zen. Alde batetik, hezurduren exhumazioa egin zuen Aranzadi elkar-teak eta, bestetik, erailketen 80. urteurrena zen. Bi arrazoi horien gatik omenaldia 10 udalen eta senideen artean egin zuten.

Joan den urteko omenaldiaren aurkezpenean aurreratu zuten etorkizunekoak elkarlanean eginen zirela. Hori horrela izateko, Sakanako 14 alkatek (Ergoiena salbu) lankidetzak hitzarmena sinatu zuten. Guztiek erabaki dute Otsoportilloko lezea "Sakanako eta inguruetako topagune enblematikotzat jotzea biktimak oroitarazteko, kontuan hartu gabe nongoak diren, zer tokitan hil ziren edo gaur egun gorpuzkinak non dau-

den, Otsoportillo aurrerantzean ere memoriaren aldeko taldeen erreferente izan dadin". Otsoportilloko omenaldiaren antolamenduan udalez aparte ibarreko memoriaren aldeko taldeak eta biktimen senideak izanen dira.

## Adostutakoa

Otsoportilloko omenaldia herritarren "oroimen kolektiboan ondo gordeta daukate; sakandarrendako eta aldameneko ibarretako herritarrendako topa-egun berezia izan da beti". Aitortza hori egin da, udalek omenaldia behar bezala egiteko beharrezko diren guztiak "modu koordinatuan" eginen dituzte. Ekitaldia egiteko baimena eskatzea; komunikazio lanak (kartela egin, jarri, sare sozialak, prentsa oharra edo prentsaurrekoa), omenaldia diseinatzea (parte-hartzaileak, lore eskaintza, musika, dantzariak, bertsolariak...), alderdi teknikoak (megafonia, agertokia eta abar), auzatea, erabilitako eremuaren garbiketa eta ekitaldia garatzeko beharrezkoak diren gainerako ekintzak.



Sakanako udaletako ordezkariak Otsoportilloko omenaldia elkarrekin antolatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Hori guztia prestatzeko udalek maiztasun bilera eginen dute. Bilerak horretara senideak eta memoria taldeak gonbidatuak izanen dira. Gainera, legegintzaldiaren hasieran gaiaz arduratuko den ordezkari bat izendatuko dute uda-

lek. Ekitaldia antolatzeko udalek euren baliabideak jarri beharko dituzte. Bestalde, udal aurrekontuetan Otsoportilloko ekitaldirako diru-sail bat sortu beharko dute udalek. Ekitaldia egiteko gutxieneko 60 euroko kuota ordaindu behar-

ko dute eta horri biztanle bakoitzeko 0,08 euro gehitu beharko zaio. 2.428,48 euro aurreikusitako diru-tengorako. Hitzarmenak urte beteko iraupena izanen du, automatikoki berrituko dena, alderen batek salatzan ez badu behintzat.

## &gt;&gt; Altsasu

## Sexgunea, sexualitateari buruzko udal zerbitzu berria

**12 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduta dago. Martxotik hasita, hileko azken ostiraletan emanen du zerbitzua Intxostiapunta gazte gunean; 17:30etik 19:00etara 30 urte arteko gazteendako eta, 19:00etatik 20:30era, 12 urtetik gorako nerabeendako**

Altsasuko Udalen Gazteria Sailak Sexgunea zerbitzu berria mustuko du heldu den ostiraletan, hilak 31. Sexguneak sexualitateari buruzko aholkuak eta prestakuntza ematen dizkie 12 eta 30 urte bitarteko gazteei. Blanki Torres gazteria teknikariak azaldu digunez, gazteen eskaera bati erantzunez sortu da zerbitzu berria. Torresek azaldu duenez, Sexguneak "zerbitzu aktiboa eta parte-hartzailea izatea nahi du, Altsasuko gazteen eskaerei eta sexu-errealitate berriei erantzuna emanen diona, beste zerbitzu batzuek ematen dituzten prestazioen osagarri. Era berean, Udalarendako oso garrantzitsua da bertan euskararen erabilera sustatzea".

Intxostiapunta gazte gunean eskainiko den zerbitzua doakoa eta konfidentziala izanen da. Sexologian aditua den Bel Pozuetak dinamizatuko du. Banaka nahiz koadrillan joan daiteke. Ez da beharrezkoa alde aurretik hitzordua eskatzea, nahikoa da egun horre-



Sexgunea zerbitzuaren aurkezpena. Zerbitzua 12 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduta dago.

tan bertan agertzea. Hala ere, alde aurretik hots egin daiteke. Sexualitatean barna eginen den ibilbide hori hilaren 31n hasiko da, eta honako gaia izanen du hizpide: Ezagutu zure gorputza, aukera bat da eta.

Neska, mutila, arra, emea, feminitatea, maskulinitatea, generoa, sexua, sexualitatea, identitatea, lesbianismoa, transgeneroa, aurreiritziak, erotofilia, homosexualitatea, gay, transfobia, plazer-rra, maitasuna... eta gehiago.

Torresek azaldu digunez, "pertsonek adina era daude maitatzeko, sentitzeko eta desiratzeko. Zorionez, gure gizartea errealitate horiek ere badaudela deskubrituz eta onartuz doa". Hori horrela, teknikariak gaineratu du: "nerabeak eta gazteak elkar bizi, sentitu, adierazi eta erlazionatzeko hainbat modu esperimentatzen ari dira... eta, horretarako, bide ugari erabiltzen dituzte, konektatzeko eta komunikatzeko egun ditugun baliabide berriei esker".

## Ibilbidea

Altsasuko Udalak, Gazteria Sailaren bidez, nerabe eta gazteei zuzendutako sexu-heziketaren alde egin du etengabe. "15 urte hauetan, gure jardueren bidez, gazteen sexu-osasuna hobetzen lagundu dugula uste dugu. Hala ere, egindako guztia ez da nahikoa eta argi daukagu oraindik ere zerbitzuak eman behar ditugula alor horretan, orientazioa eta heziketa ezinbestekoak baitira sexu-osasuna hobetuko bada" adierazi dute Gazteria Sailetik.

## SAKANA

## Mintzane, euskara on-line eta doan praktikatzeko

[www.mintzane.net](http://www.mintzane.net) web gunean dago proiektuaren informazioa



Euskara praktikatzeko beste aukera berri bat dago: Mintzane. Mintzane euskara on-line eta doan praktikatzeko aukera ematen duen proiektua da. Euskaraz hitz egiteko beste aukera bat da, noiznahi, edonon eta doan egiteko. Horretarako, [www.mintzane.net](http://www.mintzane.net) web gune-ra joatea besterik ez dago.

## BIDELAGUNAK ETA BIDE-LARIAK BEHAR DIRA

Proiektu honen bitartez, bidelagunak, hau da, euskaraz ongi dakitenak, eta bidelariak, euskara praktikatu nahi dutenak, elkartzen dituzte, euskara mintza saioak internet bidez egin ditzaten. Doaneko zerbitzua da. Ohiko Mintzakide proiektuaren antzekoa da, baina euskara solasaldia internet bidez egiten da. Hain zuzenera, Mintzakideko aurreko saioak egiteko hainbat arazo dituztenei aukera emateko sortu da egitasmo hau.

[www.mintzane.net](http://www.mintzane.net)

Mintzane proiektuari buruzko informazio guztia eta izena ematea.



# Altxorak

Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Zinema gustuko duen orok du gogoan gidoilari bikain batek edo bestek idatzitako esaldi birrintzaileren bat. Nik Gran Torinoko hmong neskek dioen esaldi bat daukat buruan bueltakazkenaldian: "gu ez gara toki bat, etnia bat gara". Halako esaldi laburrean horrenbeste gauza esateko gai den gidoilariak saria

beharko luke. Badakit etnia hitzak ospe txarra duela, garai bateko arraza hitzaren eufemismoztat hartzen badugu behintzat. Zenbat gatazka etniko izan ote diren munduan, europarren estatu moduak aplikatu nahi izan direnean kontinente guztietan. Akulturazioa, gerrak, leku aldazte derrigorluak eta genozidioak

haien ondorio latzenak izan dira. Herriak ez dira mendi bat, ez itsaso bazter bat ez bailara bat. Haien gainean denbora batez garatzen den giza taldea dira. Ingurune fisikoarekin lotura handia duena, baina ezaugarri kultural, sozial eta politikoez forma ematen diotenak. Muga fisikoak, estatuak herria bere kontrolpean edukitze-

ko behar dituen egiturak dira. Ezaugarri kultural, sozial eta politikoko horiek galtzen dituen herria ez da ezer. Akulturatutako giza multzo bat estatu edo botere ekonomiko baten menpe. Kontsumitzaile otzan baino ez, beste herrien hizkuntza, ohitura eta bizimoduak imitatuz bere nortasuna galdua duena.

Mugimenduan dauden herriek beren ezaugarriak gordetzen dituzte mendeetan, berezitasun horiek estatuaren arazo bilakatu ohi dira. Errefuxiatuen leku aldatzeko estatu homogeneoen buruhauste dira, asimilatzen zailak izan daitezkelako. Bereizten gaituzten ezaugarri horietan dira gizatariaren altxor nagusia.

## barrutik kanpora

### Mugimendua ibiliz erakutsi behar denez...

Astebururo ehunka lagunek ibili behar izaten dute Frantzia eta Espainiako estatu etako errepedetan barna, haien senide eta lagunei minutu gutxiko bisitetan haien maitasuna eta elkartasuna adierazteko. Exodo hori betiko bukatzeko erronka aspaldikoa da, baina bidaia luze horren bukaera inoiz baino gertuago ikusten dugun honetan, Etxerat etengabeko mugimenduan ari da urteko lehen hilabe-

te hauetan. Etxerat hasita, Euskal preso politikoa Euskal Herriratzea eta eritasun larriak edo sendaezinak dituzten presoak askatzea helburu, Hego Euskal Herriko eragile sozial eta politikoa gehienekin (PP eta UPN salbu) elkarriketatu dira Etxeraterako ordezkariak. Jakinarazi dutenez, elkarriketa horietan agerian gelditu da gai horren inguruan ia erabateko adostasuna dagoela.

Bestalde, Etxerat Elkarte delegazio bat Suitza eta Alemaniara abiatu zen joan zen astean, alderdi politikoa zein giza eskubideen defentsan ari diren elkarteekin elkarriketatzeko. Espainiar eta frantziar estatuak eskubideen urraketa mantendu nahian baliatzen duten blokeoa gainditzea dugu jardueraren helburua, eta bereziki, urraketa horien ondorioak azaltzea, alegia, ondorio lazgarriaren

bat, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten euskal preso politikoen egoera.

Bidenabar, Nekane Txapartegi euskal preso politikoa bisitatu zuten Zuricheko espetxean. Nekane Txapartegiren kasuan, tratatu txarrak eta torturak ikeretzeko Istanbulen Protokoloa lantzen ari direla baieztatu zuten PSSko ordezkariak. Torturaren Aurkako Mundu Erakunde (OMCT) arduradun batekin ere bildu da Etxerat. Erakunde honek Txapartegi ez Espainiaratzeko eskatu zion Suitzako Gobernuari bere momentuan, hura Espainiako justiziaren esku uzteko eskaerak «torturapean egindako deklarazioetan oinarri-

tutako epai batean» duelako abiapuntua.

Tortura sistematiko horien testigantza luze eta zabala izan dugu Sandra Barrenetxearen ahotik joan zen asteko epaiketan.

Bere adierazpen zirrargarrien bitartez beste behin ere atxiloaldian nagusi izan eta izaten den inpunitatea izan dugu hizpide; epaiak erakutsiko du zigorgabetasun horrek «justizian» ere jarraipena duen, baina argi dago torturen zigorgabetasuna eta euskal presoan urrutzea amaitzea eta preso gaixoen kaleratzea lortuko badugu etxean eta kanpoan gure mugimenduak areagotu beharko ditugula.

**Sakanako Etxerat**

## Hara zer dien

### Adi bideo jokoekin

Bideo-jokoak aztertuko ditugu, gehienbat gurasoengan hausnarketa pizteko helburuarekin. Jada urte asko gure bizitzan sartu zirela. Orduan ez genekien, haurrei zuzendua zegoen joko batek horrelako arrakasta izango zuenik. Haurrek eta haurrak ez direnek, gustuko dute bideo-jokoekin aritzea. Baina, adi! Nolako da erabilpen hori? Zenbat ordu ematen dituzte haurrek pantailen aurrean? Gurasoei buru hauste ederrak ematen

dizkigu kontu honek, eta arrazoiez, kontuan izaten badugu bideo-jokoekin, abantailak izateaz gain, arriskuak ere badituztela.

Badakigu non ibiltzen diren sarean daudenean? On-line diren bideo-joko batzuk badaude, eta milaka pertsona batera konektatuak egon daitezke joko berdinean jolastan. Partida batean ezezagunak diren 12 urteko haurrak, 35 urteko helduekin batera egon daitezke, inongo kontrol neurri-

rik gabe, nahiz eta horietako joko asko 18 urte baino gehiago dituzten gazteendako zuzenduak egon.

Honek beste hausnarketa batera eramaten gaitu. Nolakoak dira jokoekin edukiak? Benetan badakigu non dabilzan gure seme-alabak, nolakoak diren erabiltzen dituzten jokoekin edukiak? Jakin badakigu, internetek munduko ate guztiak irekitzen dizkigula, gure etxeko goxotasunetik atera gabe. Egin beharreko galdera, orduan: gai dira adingabeko neska mutilak on line mundua gestioatzeko? edo gurasoen heziketa eta ardura beharrezkoa da?

Badakigu joko hauek adinaren araberako sailkapena izaten dutela baina ikerketek diotenez indar-

keria nagusi izaten da joko askotan. Horrek ekar dezake, neska mutilak, joko hauek erabiltzeagatik, jarrera bortitzak izatea? Ikerketek ezetz diote, baina dakiguna da joko agresiboekin jolasteko ohitura duten haurrek indarkeria normalizat hartu dezaketela; azkenean, arazoak konpontzeko modu bat dela ikasi daiteke, horrela ikasi dutelako on-line mundu birtuala bezain erreala den horretan.

Beharrezkoa da, beraz, eta oso garrantzitsua, guraso eta hezitzaileek erne egotea eta joko bat erosi baino lehen egokia den ala ezaztertzea. Askotan sailkapenak egiteko erabiltzen dituzten mailak ez datoz adinarekin bat.

Gure seme-alabendako egokia dena, gure etxean sartzen dena, gure seme-alabek non nabigatzen duten... gurasoek erabakitzen dugu, adinaren sailkapenak gure gaituzten ditugulako beste inork baino gehiago eta guran konfiantza izan behar dugulako, gure erabakiak haiendako egokiak izan behar direlako.

Maite ditugulako, seme-alabak zaindu eta babestu behar ditugu, bizitzan autonomoak izan daitezten eta hartzen dituzten erabakiak, beraientzako egokiak izan daitezten, bizi errealean, naiz birtualean.

**Sakanako Prebentzio Zerbitzuak**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea

eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus** edo **948 564 275** telefonoa.

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILA:** Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Erkuden Ruiz Barroso  
**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia  
**ARGITARATZAILA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**



**BAZKIDEAK** 

 **Nafarroako Gobernua**  
 Gobierno de Navarra

**BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA:** Lakuntza-ko Udalak herriko bake epaile titularraren eta ordezkoren kaguak betetzeko deialdia egin du. Interesdunek eskabidea udale-

txean aurkeztu dezakete. Horretarako epea 15 eguneko da, joan den ostegunetik kontatuta.

# sakanerria >>

## >> Urdiain

# Urdinen... inko du eskuaz?

**Bernoako galtzada ezagutzeko txangoa, euskaraz, larunbatean, 15:30ean, Urdiaingo Urrizitik (igerilekuak)**

Gurasoen Euskara Batzordeak familieizuzendutako proposamena egin du: Bernoako galtzada ezagutzeko txango bat. Urdiaingo historia ondarearen arrasto hori Ion Zufiaurreren eskutik ezagutzeko aukera izanen dute joanen direnak. Zehazki, 6 eta 12 urte arteko neska mutilak eta euren guraso euskaldunak. Antolatzaileen ezinbesteko baldintza joaten diren aita edo amak eusliek izatea da, hau da, euskaldunak. Txangoan haien artean eta hurrekin erabili beharrekoa euskara izanen baita. Eguraldiak lagunduko ez balu eta txangoa egiterik ez balego, bestelako jardueraren bat egitea aurreikusia dute.

Urdiaingo haurrak gaztelaniaz gero eta gehiago ari dira eta horrekin kezkatuta sortu zen Guraso-



Haur urdindarrak liburutegiko ordenagailuan.

en Euskara Batzordea. Inaki Eizemendiren aholkularitzarekin haurren euskararen erabilera handitzeko helburua jarri dute. Joan den ikasturte akaberan euslien kanpaina egin zuten eta bestelako enberrira ikusita txangoarena egitea

adostu zuten batzordean. Ibilaldi euskara erabiltzeko gune gisa planteatu dituzte, eta gidari lanak herriko euskara poliki dakien pertsona batek gidatzea; txangoan Urdiaingo euskara erreferentziala izanen baita.

## >> Bakaiku

# Euskerian ikastaroa hasi da



Irakaslea Bakaikuko ikasleekin euskalkiari buruzko lehen saioan.


Lau ostiraletan ordu beteko saioak Bakaikuko euskalkia berreskuratzeko. Saio motz eta dinamikoak. Gonbidapen hori luzatu zieten bakaikuarrei eta joan den ostiraletako aurreneko saiora 20 herritar aurkeztu ziren. Hainbat

dinamikaren bidez, Aitor Irigoien irakasleak oinarri batzuk eman zizkien. Ikastaroak gaur eta hurrengo bi ostiraletan izanen du segida, 18:30etik 19:30era, Bakaikuko udaletxeko goiko aretoan. Ateak irekiak daude.

## SAKANA

# Animaliek 23 auto-istripu eragin zituzten joan zen urtean

Sakanako errepide sarean animaliek eragindako 23 istripu zenbatu zituen 2016an Foruzaingoak. Nafarroan, guztira, 688 izan ziren. Beraz, basa-animaliek ibarrean eragindako istripuak herrialdekoen %3,34 dira. Sakanan zenbatutako ezbeharren %65,21 ibarra puntatik puntara zeharkatzen duen autobian (A-10) izan ziren. Sakanako bide luzeena da, baina kopuruak ere basa-animaliak alde batetik bestera pasatzeko duten traba ere adieraziko luke. Mugimendu askatasun falta horrek istripu arriskua handituko luke.



**Ardura**  
 Salbuespenak salbuespen, istripu horien ardura gidariarena eta bere aseguruarena dira joan den urteko martxotik.



Errepidea	Istripu kopurua	Ehunekoak
Iparraldeko Autobia (A-1)	3	13,04
Sakanako Autobia (A-10)	15	65,21
NA-1000 Altsasu-Gipuzkoako muga	1	4,34
NA-120 Lizarra-Beasain	2	8,69
NA-7510 Lekunberri-Aralar	1	4,34
NA-7520 Arbizu-Lizarragabengoa	1	4,34
<b>Guztira</b>	<b>23</b>	<b>100</b>

**Amaya**  
Okindegi-gozotegia

Araia (Araba)  
945 314 572

Olazti  
948 468 755

Uharte-Arakil  
667 353 503

Etxarri-Aranatz  
948 461 660

Lantegia: Teileria Aldapa S/N  
Altsasu  
948 562 205

panaderia · okindegia

San Juan kalea, 50  
Altsasu  
670 389 017

BM-supermerkatua

Otadiako Kristo  
Deuna Plaza, 19  
Altsasu  
948 562,185

Zumalakarregi Plaza  
Altsasu  
T. 948 468 026

# “Euskara indartzeko gogor egin genuen lan”

**Joxepi Markinez eta Javier Casteig**

**Kima euskara taldeko kide ohiak**

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

**Euskarak oraindik bultzada baten beharra dauka Altsasun, kale erabilerari dagokionez batik bat. Haatik, ezin uka duela hamarkada batzuk baino egoera askoz ere hobean denik. 90eko hamarkadaren hasieran, kasurako, soilik herritarren %11,7 zen euskalduna Altsasun. Desoreka handia zegoen Sakanako orduko errealitatearekin, biztanleen %61,6k baitzekien euskaraz bailaran. Egoera horren aurrean, Altsasuko hainbat herritarrek Kima euskara taldea sortu zuten 1992an, eta urtebete geroago, Euskal Txokoaren proiektua hezurramitu zuten, herriko euskaldunen bilgune izan zedin. Duela 25 urte izan zen hori, eta urteurrenaren harira, Kiman ibilitako bi kideekin mintzatu gara.**

**Duela 25 urte sortu zenuten Euskal Txokoa. Zer helbururakin?**

**Joxepi Markinez:** Ni Sakanako Mankomunitateko euskara zerbitzuan nengoen. Bertan hiru teknikari geunden, eta hirurok ikusten genuen Altsasun bazegoela euskaldunak batzeko beharra, modu horretan euskararen erabilpena sustatzeko. Ideia horrela sortu zen. Orduan, lehen saiakera egin genuen. Euskaldunen zentsutik pertsona batzuk aukeratu, eta eskutitza bidali genien. Erantzuna oso kaskarra izan zen, ordea. Hamarren bat bilduko ginen. Horren ostean, beste kanpaina bat egin genuen. Herri osoan zehar kartelak jarri genituen, arlo ezberdinetako altsasuarren argazki eta iritziak, eta “Guk beharrezkoa dela uste dugu, eta zuk?” lemapean. Kanpaina harekin jendearen ikusmina piztu genuen, eta hurrengo bileran 50 bat pertsonak hartu genuen parte.

**Ondoren zer urrats eman zenuzuten?**

**Joxepi Markinez:** Bilera horren ostean, talde handiago bat osatu zen, Euskal Txokoa sortzeko helburuarekin. Orduan hor eztabaida bat izan genuen: zerk izan behar zuen lehentasuna, toki bat lortzeko, edo jendea erakartzeko, nahiz eta toki jakin bat ez eduki?  
**Javier Casteig:** Horren harira, baten beste galdera bat: kalera atera behar zen euskara, edo leku itxi batean landu behar zen? Oroitzen naiz kontu horri buelta asko eman genizkiola. Azkenean bigarren mailakotzat jo genuen tokia lortzea. Ikusi genuen ez zuela merezi indarra hor jartzea. Euskal Txokoa leku fisiko bezala eratzeak ideiak gutxi iraun zuen. Tokia izatea ez zen lehentasunezkoa, eta gainera, bideragarria ere ez zen. Ez genuen nahikoa babes halako zerbait aurrera eramateko.

**J.M.:** Hortik aurrera taldeari eman genion garrantzia. Euskara talde

bezala egin genuen aurrera. Bazkideak genituen, eta hauek kuota bat ordaintzen zuten. Behin taldearen helburuak eta izaera zehaztuta, ekintzak egiteari ekin genion.

**Ekintza horiek nolakoak izaten ziren?**

**J.C.:** Bertso afariak, bertso-paper lehiaketak, erakusketak, liburuen aurkezpenak, pegatina salmentak... Halakoak egiten genituen batez ere. Gauzak batzuk urtero egiten genituen, eta beste batzuk, oso noizbehinka. Azpimarratu beharra dago jende oso gutxi ibiltzen ginela. Sei edo zazpi bat lagun biltzen ginen bi astean behin. Bazkideen kuotari esker, ekintzak aurrera atera ahal genituen, baina jendearen erantzuna ez zen nahi bezain ona.  
**J.M.:** Ekimen horiez aparte, hainbat erakunderekin kolaborazioak egiten genituen. Esaterako, elkarlanean aritu ginen, Bierrikekin, Mankomunitatearekin, udalarekin eta ludotekarekin. Azken horretan jolasak euskaratzen jardun genuen. Bierrikekin izandako harremanari dagokionez, gogoratzen dut Guaixeren sorreran parte hartu genuela. Bilera bat egin zen izena erabakitzeke, eta bertan izan ginen.

**Zer bilakaera izan zenuten talde gisa?**

**J.C.:** Hasieran ilusio handia genuen. Euskararen sustapenaren alde lan egiteak asko motibatzen gintuen. Alabaina, azkenean nekatzen hasi ginen, familia eta lan kontuak ere hor genituen... Denborak aurrera egin ahala, geroz eta maiztasun gutxiagorekin biltzen ginen, eta momentu batean amore eman genuen. Gauzak antolatzeke indarririk gabe gelditu ginen. Gero, entitate bezala, izenak hor jarraitu zuen, eta egin ziren saiakerak ideia berpizteko, baina uste dut ez zutela ibilbide luzerik izan.

**Hortaz, herritarren artean proiektuak ez zuen arrakasta handirik izan.**

**J.M.:** Ez, ez genuen herritarrekin konektatzea lortu. Batzuetan gonbidapen pertsonalatuak egiten genituen, jendea erakartzen saiatzeko. Baina, salbuespenak salbuespen, herritarren erantzuna eskasa izan zen. Agian eraginkortasuna falta izan zitzaigun. Ez dakit. Akaso, ekintzak ez ziren behar bezain erakargarriak, edo besterik gabe, jendeak ez zituen gure helburuak partekatzen.

**J.C.:** Guk gure onena eman genuen, hortaz zalantzarik ez dut. Baina, azkenean, amore eman behar izan genuen. Jendea inguratzea ez ge-



nuen lortu, nekatu egin ginen, momentuan ez genuen erreleborik izan, eta, azkenean, talde gisa desagertu egin ginen. Saiatu ginen, baina porrot egin genuen.

**Baina herriaren eta euskararen alde egindako lana hor dago.**

**J.C.:** Bai, noski. Porrota diot, azkenean desagertu egin ginelako. Baina bidean zehar gauza asko egin genituen; batzuk hobeto, eta beste batzuk okerrago, baina beti intentziorik onenarekin. Gogor egin genuen lan euskara indartzeko, eta, egia esan, pozik nago egindako ahaleginarekin.

**Garai hartan soilik herritarren %11,7 zen euskalduna Altsasun. Beraz, beharra bazegoen euskara sustatzeko.**

**J.M.:** Bai, hala da. Ezagutza datuak oso kaskarrak ziren garai hartan. Euskaldunok multzo oso murriztu bat ginen. Horregatik, beharra zegoen euskara genekienok bildu, eta, modu horretan, hizkuntza indartzeko. Hori zen, hain zuzen ere, Euskal Txokoaren ekimenak zuen helburua.

**Geroztik euskararen egoera asko aldatu dela uste duzue?**

**J.M.:** Bai. Azken batean, hor dago euskaldun kopurua. Orain askoz ere jende gehiagok daki euskaraz hitz egiten. Gazte ia guztiak dira elebidunak, eta hori oso pozgarria da. Gainera, koadrila batzuetan nagusiki euskara erabiltzen da. Hori lehen pentsaezina zen. Gazte garaian agian gehiago jotzen da erdarara, baina ondoren, euskararen erabilpena igo egiten dela uste dut. Nik, behintzat, euskaraz egiten dut nire adineko askorekin. Eta Kiman genbiltzanean horretarako

aukera askoz ere gutxiago zegoen. Garai hartan euskaldunak zenbatuak ginen. Orain, ordea, euskaraz hitz egiteko oztopo askoz ere gutxiago dago.

**Alabaina, orain bada beste arazo bat: euskaldun askok nagusiki erdarara jotzen dute.**

**J.C.:** Izan daiteke, bai. Erdararen aurrean amore ematearen zama hor dugu. Koadrila batean erdaldun bat agertzen denean, automatikoki erdara erabiltzen da. Egoera horietan beti atzera egiten dugu. Altsasuko giroa, oraindik ere, oso erdalduna da, eta horrek baldintzatu egiten du erabilpena. Bestelako giro batekin, ziur nago erabilpena askoz ere handiagoa izango litzatekeela. Hemen euskararen kasuan militantea izan beharra dago. Eta agian militante kontzientzia hori da falta dena. Orain euskalkia berreskuratzeko ahaleginean hasi dira herritar batzuk, eta hori pizgarri izan daiteke. Urruti ikusten dut euskalkia osoki berreskuratzea, baina ahaleginak berak eragin dezake euskaraz gehiago hitz egitea.

**Euskarari zer etorkizun ikusten diozue Altsasun?**

**J.M.:** Ni baikorra naiz. Azken hogeitau urteetan aurrerapauso ugari eman dira, eta uste dut etorkizunean gauzak are hobek izango direla. Nire ustez, aldaketa handia nabaritu da oraineko gazte elebidunak guraso bihurtzen direnean. Gaur egun, etxe askotan oraindik ez da euskaraz hitz egiten. Baina etorkizunean uste dut baldintzak askoz ere hobek izango direla. Emaizak denborarekin ikusiko dira.

## SAKANA

### Blogetan! lehiaketan bi sakandar finalista

II. Blogetan! Euskal blogariak lehiari lehiaketak euskaraz sortzen diren blogak ezagutu, zabaldu eta sustatzeko helburua du. Lehiaketara 129 blog aurkeztu ziren, lau mailatan banatuta. Euskal herritarren botoen bidez maila bakoitzeko hiru finalista aukeratu dira. Kultura eta Aisialdiaren blog sakandar bana dago finalisten artean. Aurrenekoa, Castillo Suarez idazlea eta, bigarrenen, Eñaut Agirrebengoa eta Iñaki Berastegi kazetariak.



Zinema, literatura, artea, diseinua, moda, sukaldaritza, gastronomia, enologia, musika eta beste gai lantzen zituzten 58 blogen artean, Suarezzen *Iparaldeko neska* bloga pasa da finalera. Suarezek hainbat idazleren (gehienak emakumeak) testu hautatuak jartzen ditu, zaharrak zein berriak, gertukoak zein urrunekoak, jatorrizkoak zein itzulpenak, baina guztiak ere bihotzeraino iristen diren horietakoak.

Zaletasunak, kirola, bidaiak eta beste gai zutenen mailan 27 blog aurkeztu ziren lehiaketara. Finalera pasa den hirukoaren artean dago *Taxoareko hitza*. Osasuna futbol taldearen gaurkotatua euskara hutsean jorratzen duen bloga sortu zuten Berastegik eta Agirrebengoak 2014an. Geroztik zale gorritxo euskaldunen artean bere tokia egin du.



### Blogarien topaketa

Azkue fundazioak Argia aldizkariaren laguntzaz antolatu du lehiaketa. Maila bakoitzeko blog irabazlea zein den eta blogari berriaren sariak zeinek eskuratuko duen martxoaren 30ean jakinen da, Bilboko Euskararen Etxean egiten den Blogetan! Euskal blogarien topaketa jardunaldian. Euskal blogosfera ardatz hartuta, hainbat gai aztertuko dira: euskal blogintzaren inkestaren emaitzen aurkezpena, euskarazko garapenak, monetizazioa, publizitatea edota hedabideen blogariak. Hitzaldi eta mahi-inguru desberdinetan jorratuko dira gai horiek. Despeditzeko lehiaketako sari banaketa egiten dute.

## SAKANA

## OGZMk eta Bocalan Biak Bat fundazioak hitzarmena sinatu dute

Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko buru Javier Pazek eta Bocalan Biak Bat fundazioko Josune Azpirozek hitzarmena sinatu dute. Pazek azaldu duenez, Lau zango mila irri txakurrekin lagundutako terapiasaioretan parte hartu eta baliabide gutxi dituzten hiru herrietako familiei diru-laguntza emanen zaien hitzarmen horren bidez. "Familiek ordaindu beharko luketenaren %90 arte hartuko du beregain mankomunitateak". Horretarako, aurten 5.000 euroko aurrekontua dutela jakinarazi du. Azpirozek gogorarazi du garapenean zailtasunak dituzten haur eta familiei zuzendutako animaliek lagundutako terapia programa bat dela Lau zango mila irri. Euren Altsasuko egoitzan egiten dute. Profesionalekin lortzen ez duten konfiantza maila lortzen dute hurrek animaliekin. Kasu honetan txakurrekin. Umeak ez dute terapia bat bezala ikusten "txakurrekin jolastera" joaten direlako, eta horrek motibazioan laguntzen du. Animaliekin motibazioa lantzen dute gehien bat. Hurrek txakurraren bidez jasotzen ditu eskaerak, eta txakurrarekin jolasten duenez, modu naturalean egiten ditu gauzak. Terapia osagarria da kasu gehienetan, baina ez du horrela izan beharrik.

## Altsasu

## Emakumeen kontrako indarkeria delituagatik atxilotuta

Indarkeria matxistako eta kautelazko neurrien urraketakosteko delituagatik foruzainek Iruñeko bizilaguna den 21 urteko gizon bat atxilotu du aste honetan. Foruzaingoak zabaldu duenez, gizon batzuek bikote kide ohiarengandik urrun egoteko agindua zuen. Biek hori jakin arren, biek elkarrekin bost egun pasa zituzten. Eztabaida baten ondoren gizon batzuek antza bikote ohi jo zuen eta hark Foruzaingoari hots egin zion.



## Irurtzun

## Udalak Tokiko Azpiegitura Planera zortzi proiektu aurkeztu ditu

Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasoko balu 634.646 euroko balioko lanak egingen lirateke hurrengo urteetan

Irurtzunge Udalak antzeman dituen beharrak eta bizilagunen eskaera zuzenak kontuan hartuta, Tokiko Azpiegitura Planera zortzi proiektu aurkeztu ditu. Guztiak egiteko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza ezinbestekoa izanena da. Egitasmo horiek udalak Irur-

tzun hobetzeko duen helburuarekin bat datozen, Aitor Larraza Carretera alkateak azaldu duenez.

### Tokiko Azpiegitura Plana

Halako planek herrietan makina bat lan egiteko aukera eman dute. UPN-ren aurreko legegintzaldian "gobernuak tokiko azpiegiturak finantzatzeko ez zuen inolako laguntzarik eman", gogorarazi du alkateak,

## Proiektuak

Lana	Aurrekontua
Ardubil kalearen asfaltatzea eta zolaketa	28.206
Bi Ahizpe kalearen asfaltatzea eta zolaketa (9, 9bis, 11 eta 11 bis eraikin parean)	65.018
Foru Plazako konponketa lanak	97.175
Atakondoa Eskola Publikoaren isolamendua hobetzea	66.295
Kiroldegiko ipar paretako ur sartzea konpondu	38.218
Leiho aldatzea (udaletxean, Kultur Etxean eta Musika Eskolan)	34.937
Kultur etxeko teilatu aldatzea	44.432
Argiteri publikoa LED teknologiarara aldatzea	250.365



Ardubil kalean lanak egin nahi lituzke Irurtzunge Udalak.

nabarmenduz Nafarroako Gobernuak 2017-2019rako Tokiko Azpiegitura Planaren Foru Legea onartu duela. "100 milioi erabiliko dira datorren hiru urtekoak, eta tamaina txikiagoko eta sakabanatuak

eta geografikoki handiagoko toki-erakundeek proposatutako inbertsioak lehenetsiko dira. Horren bestez, Nafarroaren lurralde-orekarako tresna izanena da" plan berria Larrazaren iritziz.

## Altsasu

## Aurrekontuak behin betiko onartu dira

Geroa Bairen eta PSNren aldeko botoekin, Goazen Altsasuren absentsioarekin eta EH Bilduren kontrako botoarekin (UPN ez zen bilkuran izan) Altsasuko Udalak aurtengo aurrekontuak astelehenean onartu zituen. Javier Ollo Martinez alkateak nabarmendu duenez, onarpenak aurrekontuetan jasota dauden lanak egiteko aukera emanen du. "Aurrekontuak udalbatzaren zati garrantzitsu baten babesa izan dute. Onarpena erraztu duten taldeei esker-

tzekoa da".

EH Bilduk plantilla organikoan lanen lantaldeko hizkuntza profilen aldatzarekin ados ez zegoelako eman zion aurrekontuari. Ollok gogorarazi du EH Bilduk aurrekontuak aurkeztutako zuzenketak atzera botatzirela, Geroa Baik eta PSNk onartutako diru-sail beretatik atera nahi zelako dirua. Alkateak azaldu duenez, "aurrekontuak behin betiko onartu ondoren, Geroa Baitik zuzenketa horiek aurrekontu-aldaketak eginez onar-

tzeko prest azaldu zen". Koalizioaren zuzenketa artean udal langileek euskara ikasteko edota ikastetxeetan klasetik kanpo ikasleendako euskarazko jarduerak egiteko diru-sailak zeuden.

Alkateak azaldu duenez, aurrekontuaren hasierako onarpenaren ondoren EH Bilduk helduek euskara ikasteko diru-saila sartzeko idatzia aurkeztu zuen. "Kontuhartzailearen txostenak dio ezin dela alegaziotzat hartu eta eskaera bideratzeko aurrekontu zuzen-

keta egin beharko litzatekeela". Ollok azaldu duenez, "dirua haur eskolako ekipamenduko sailetik ateratzea proposatzen zuten". Alkateak nabarmendu du, lehenik, udalak Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuari ia 150.000 euroko ekarpena egiten diola. Idatzian egindako eskaeraren esku-duntza zerbitzu horrena dela azpimarratu du Ollok. EH Bilduk aurkeztutako azken idatzi horren kontrako botoa Geroa Baik, Goazen Altsasuko eta PSNk eman zuten.

## Altsasu

## Arte-erakundeendako diru-laguntza deialdia

Altsasun programa egonkorra garatzen duten herriko arte-erakundeak bulkatu asmoz, haiendako diru-laguntza deialdia egin du udalak. Haren oinarrietan honakoak zehazten dira, besteak beste: erakunde interesatuak irabazi asmorik gabekoak izatea, zerga ordainketak egunean izatea edota jardueraren programa egonkorra garatzea eta Altsa-

sun urtean, gutxienez, lau emanaldi ireki egitea. 12.800 euroko diru-saila du deialdiak eta udalak sekula ez du onartutako aurrekontuaren %80 baino gehiago emanen. Eskabidea eta dagokion dokumentazioa aurkezteko epea apirilaren 12ko 14:00etan itxiko da. Informazio gehiago udalaren web gunean dago, [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net).

## Altsasu

## Meteorologia-datuak jasotzen dituztenei gobernuaren aitortza

Nafarroako meteorologia datu osatuak 83 boluntarioren eguneroko lanari esker dugu. Haiak, egunero egunero, euren herriko meteorologia-estazioara joan, datuak jaso eta arduraduneri telefono bidez jakinarazten diete. Urteko egun guztietan, astegun edo jaieguna izan, berdina da. Jasotako datuak hainbat ikerketarako baliagarriak izateaz aparte, eskualde edota toki mailako klima ikerketak egiteko balio

dute. Gaurko Meteorologiaren Eguna dela eta, Nafarroako Gobernuak datuak jasotzen dituzten gizon-emakume horien lan isila aitortu nahi izan du. Sakanan eskuzko bi meteorologi estazio daude: Irurtzunen eta Altsasun. Gainontzeko hiruak automatikoak dira: Aralar, Etxarri Aranatz eta Urbasa. Altsasuko estazioa XX. Mende hasieran kokatu zen, eta beraz, 100 urte baino gehiagoko datuak jasoak ditu.

Centro  
**San Juan**  
Psicología

Helduen psikologia  
Haurren eta gazteen psikologia  
Sexologia  
Difuntzio sexualak  
Bikote terapia  
Familia-orientabidea

628 093 631  
San Juan, 14 | 31800 Altsasu

Txoooootx!

**JUANLUZENA**  
**SAGARDOTEGIA**

MAIATZERA ARTE  
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ  
948 604 571 | 680 652 183

**SORGINAK**  
taberna

LAKUNTZA  
948 576 357

**PORTUKO**  
OKINDEGIA

ogiaren  
artisansauak

Altsasu  
948 563 822  
Lantegia  
948 467 153  
Etxarri Aranatz  
948 460 988

## » Altsasu

# Zer gerta ere, Otadiko ermita itxita

**Teilatua eta bobeda ez daude egoera onean eta konpondu bitartean itxita egonen da. Beraz, maiatzeko gurutzeko elizkizunak ez dira ermitan egingen**

Kanposantura itsatsia dagoen ermita, Otadiako Kristo deuna, abendutik itxita dago. Rafael Aiarra apaizak azaldu digunez, ermitaren egoera ikusita elizbarrutiko arkitektoa hotsegin zuten. Eraikinaren haren behaketa adituak teilatua egoera onean ez zegoela ondorioztatu zuten. Euri uraren eraginez egitura kaltetu da. Arkitektoak konponbidea eman zuen ere, teilatua sendotu eta bobedak eta haiei eusten dioten egurrezko egitura kentzea. Lanak despeditzean, teilatuaren zurezko egitura agerian uztea.

Otadiako ermitan aurreikusitako lanek 76.000 euroko aurrekontua dute. Altsasuko parrokiaren ekonomia ez dago egoerarik onean eta, horregatik, apaizak ekarpenak eta proçposamenak ongi etorriak izanen direla esan digu. Lanak egin bitartean ermita itxita egonen da, "ezbeharrak eragozteko". Izan ere, Aiarrak gogoan du 2006ko San Juan egunean izen bereko ermitangertatutakoa: egu-



Teilatuko lanak egin arte Otadiako ermita itxita egongo da.

neko meza eta ezkontza baten ondoren ermitako teilatua barrura erori zen. Ermitaren jabetzaren inguruko eztabaida piztu zen eta 2008ko San Juan egunera arte ez zen teilatua konpondu.

## Ermitaz

Eraikinak bizati ditu. Burua, erre- taula hartzen duena, zaharrena da. Hasieran, XVI. mendean, guruztoki edo kapera irekia izan zen eta puntu erdiko arku batetik sartzen zen. Jatorrizko eraikuntza horri

egungo harlanduzko nabe laukiluzea gehitu zioten. Ermitaren barruan burdin hesi barroko batek burua eta erantsitako nabea bereizten ditu. Ermitak XVIII. mendeko erretaula barrokoa du. Andra Maria doloretakoa, San Juan haurrarekin eta gurutziltzatutako Kristoaren irudia du erdian. Gainean, aita eternoaren irudia dago.

Auñamendi Eusko Entziklopedian Kristoaren irudiaren egileak bi izan daitezkeela aipatzen da. Alde batetik, 1599an hil zen Juan

de Iriarte eskultore altsasuarra. Bestetik, Altsasun bizi izan zen Pierres Picart irudigile frantziarra izan daiteke. Azken horrek egin balu zaharragoa litzateke irudia. Debozio handia izan zaio Otadiako Kristo deunari urtetan. 1719ko agorrilaren 12an miraria ere egin omen zuen, hildako haur bat sagar bila piztu zenean. Horren berri ematen du Altsasuko Santo Kristori kantuak. Maiatzeko eta iraileko gurutzetan, 3an eta 14an, egiten dira erromeriak ermitan.

## SAKANA

# Perutarrak laguntzeko material bilketa

**Ziordiko moja baten kongregazioko bi egoitzetarako neguko arropa, betaurrekoak, bastoiak eta dirua biltzen ari dira. Materiala Altsasuko Frontoiko zeharbidearen 14. zenbakiko udalaren bajeran jasotzen ari dira, asteazkenetan, 11:00etatik 13:00etara**

Juan Urrak (Ziordia), Jose Julian Imazek (Olatzagutia) eta Josexo Etxabarrik (Altsasu) osatzen dute Ayuda Contenedores gobernuz kanpoko erakundeko (GKE) Sakanako ordezkariak dira. GKE material bilketa egiten dute, eta logistika laguntza eskaintzen diete beste talde eta erakundeei, materialez betetako edukiontzien bidalketan laguntzen diete. Haiek erakunde- an daudenetik laguntza edukiontzia India, Senegal, Benin, Honduras edota Uruguairako bidea hartzen ikusi dituzte.

Hirukoa bere boluntario-lanarekin pozik dago, baina gertuko norbait laguntzeko arra hozka zuten. Inguruan galdezka hasi eta Asuncion Mendoza ziordiarrekin topo egin zuten. Errukiaren Andre Mariaren Ahizpen kongregazioko moja da eta 40 urte daramatza Perun. Harekin harremanetan jarri ziren nolabaiteko laguntza behar zuten galdezka. Eta baiezkua jaso zuten. Hirukoa edukiontzia betetzeko material bilketari ekin dio.

## Bilketaz

Mendoza kide den kongregazioko bi egoitza ditu Perun. Limatik 25 km-tara dagoen herri pobrea da Machay Bestea, San Martin depar-



Maria Luisak eta Carmen Gonzalezek materiala eraman zieten boluntarioei. Hirurak, nonnahi dela, Manolo Tajueloren laguntza dutela diote.

tamentuko Cajamarquilla herririka da, oihanean dagoena. Azken horretan haur behartsuekin lan egiten dute. Haiei laguntzeko neguko arropa, betaurrekoak, bastoiak eta gurpildun aulkiak eskatu dituzte. GKEko hiru sakandarrek azken horiek ezik gainontzekoak biltzen hasi dira eta sakandarrei dei egin diete euren ekarpenak egiteko.

Dirua ere jasoko dute. Azaldu digutenez, edukiontzia bat Bilboko portutik bidaltzea 3.200 euro inguru balio ditu. "Behin helmugara iritsita, portutik ateratzeko ere ordaindu egin behar da. 1.000 euro inguru. Eta mojek ez dute dirurik". Horregatik, Caixabank-en Ayuda Contenedores izenean kontu korronea zabaldu dute. Izen bera-

rekin beste kontu korrone bat zabalik dago Rural Kutxan. Azken horretan diru ekarpena egiten duenak argi eta garbi azaldu behar du Ziordirako dela.

Hirukoak azaldu digunez, "ahal den diru gehiena bildu nahi dugu. Galtzen ez diren jakiak bidaltzeko eskatu ziguten. Baina horiek bidaltzea baino egokiago iruditzen zaiguk dirua bidaltzea eta haiek han erostea". Horregatik, hirurak enpresen atea jotzen hasiko dira. Olatzagutia eta Ziordiko apaizak ere haien asmoen berri emanen du elizkizunetan. Eta Mendoza mojar kongregazioko Altsasuko ikastetxeko ikasle ohiek apirilaren 8an egingen duten topaketan ere haien asmoaren berri zabalduko dute.

## » Etxarri Aranatz

# Eskolako proiektua gobernuaren argitalpen batean



Nafarroako Eskola Kontseiluak Berrikuntza proiektuak 2015-2016 monografikoa argitaratu du. Liburuak Nafarroako ikastetxetan garatutako berrikuntza proiektuen akeraketa jasotzen du, 18 ikastetxetako 20 proiektu hain zuten. Haietako asko Kontseiluaren XVIII. Jardunaldietan aurkeztu ziren, azaroan. Monografian Etxarri Aranatzko San Donato eskola publikoko lan bat dago: Ikaskuntza kooperatiboz eta Golden 5ez blai.

Ana Mazkieran Irigoienek (orientatzailea eta zuzendaria) eta Oihana Urdangarin Iriartek (ikasketa burua) idatzitako artikuluan Etxarriko eskolan lau urtez Ikaskuntza kooperatiboan eta Golden 5en inguruan egingen dako lana aurkeztu dute. Hiru arlo uztartu dituzte proiektuan: ikaskuntza kooperatiboa, gelako kohesioa eta ikaslearen autoestima zaintza eta lanketa eta eskola eta gelak lan egiteko testuinguru biko- korrako, goxoago eta ziurrago batean bihurtzea. Hiru egileen teoriaren uztarketa egin dute, eskolako antolaketa eta eguneroko lanean txertatuz.

## SAKANA

# Pentsio duinen alde lanean segituko dute

Nafarroako Pentsionistak Martxan taldeko kideek "adinarekin gure eskubideak ez dira iraugiten" eta pentsio "duinak" eskatzeko kontzentrazioa egin zuten Altsasuko Zumalakarregi plazan ostiralean. Hain justu Nafarroako Parlamentuak haiek aurkeztutako herri ekimen lege- ilea atzera bota ondoren. Pentsionistak Martxan taldeak 7.306 sinadura jaso zituen eta gutxieneko pentsioak 1.080 eurora arte osatzea eta Nafarroarendako pentsio eta babes sistema eta gizarte segu-



rantzia propioa eskatu zituen. Taldetik adierazi zutenez, parlamentuko eztabaidan "argi gelditu da egungo sistema politiko-ekonomikoaren alde egiten dutenek gure ekimena non kokatu ez dute opatzen". Hala ere, "etorkizuneko helburuak markatu ditugu. Etorkizuna egungo indarrarekin egingen dugu, eta egunerokoan lan egingen dugu nahikoa indarra sortu eta gizartea eta Nafarroako Parlamentuko indar korrelazioa aldatzeko; batere edo oso eskasa den bizi kalitatea moduko bidegabe-keriak desagertarazteko".

## » Askapenak brigada eskaintza azaltzeko hitzaldi sorta

Askapenak, euskal erakunde internazionalistak, "munduko prozesu emantzipatzaile desberdinak eza- gutu eta gerora Euskal Herrian eza- gutzera emateko" brigada internazionalistak antolatu ditu. Hego Amerika, Ertamerika, Europa edota Palestinako egoerak eza- gutzeko aukera izanen da. Brigaden berri emateko Sakanako Askapenak gaur hasiko den hiru hitzaldiko sorta bat antolatu du. Brigadak aurkeztearekin batera, joan den urtean brigadistak izandakoen esperientziak eta eza- gutu zuten errealitatea eza- gutzeko aukera izanen da.

## Hitzaldi egutegia

» Marsuak 24, ostirala, Sardinia, 19:30ean Iturmendiko Ximona gaztetxean.

» Marsuak 31, ostirala,

Uruguai, 19:30ean Etxarri Aranatzko gaztetxean. Manueltxo Goitia errefuxiatua izanen da.

» Apirilak 7, ostirala,

Sardinia, 22:00etan Arbizuko Argi- Bidea elkarte.



## » Etxarri Aranatz

## Plazaren inguruko bigarren batzarra



Etxarri Aranazko Udalak plazan estalpe bat beharrezkoa den eta Iturri Eder ingurua egokitu behar den jakiteko parte-hartze prozesua martxan du. Lehenik etxarriarrek inkesta bat erantzuteko aukera izan zuten. 150ek baliatu zuten aukera. Han emandako erantzunen ondorioak hilaren 16an egin zen aurreneko batzarrean aztertu ziren, 25 pertsonaren artean. Gutxienekoak zein diren begiratu eta berraztertzea egoki jo zen. Heldu den ostegunean, 17:30ean, udaletxean beste batzar bat izanen da. Hara joaten direnek bi galderari erantzun beharko diote: plazan estalpe bat eginen dugu? Non?

## » Olatzagutia

## Udalak hiru hilerako mendiko peoi kontratatuko du

Olatzagutiako Udalak mendian lan eginen duen peoi bat kontratatuko du. Hiru hilabetetarako izanen da, apirilaren 18tik hasi eta garilaren 17ra arte. Lanaldi osoko kontratua izanen da eta bere betebeharren artean honakoak izanen dira: mendiko pista eta bidexketako sasitza kentze lanak, etxerako egun loteak markatu, itxidurak konpondu, mendiko pisten mantenu lanak... Deialdian interesa dutenek curriculum hilaren 31ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dute udaletxean. Informazioa [www.olazti.com](http://www.olazti.com) web orrian dago.

Bestalde, Olatzagutiako Udalak jakinarazi du dagoeneko zabalik dagoela etxerako egun loteak eskatzeko epea. Apirilaren 21era arte egin daitezke eskaerak udaletxek bulegoan. Loteek 25 euro baliokidute eta izen ematean 10 ordaindu beharko dira, gainontzekoa lotean zozketa egunean.

## » Etxarri Aranatz

## Egia, Zabalarena argitzeko

**Igandean 20 urte beteko dira Josu Zabala Salegi ETAKo kidea hilik agertu zela. Bihar, 20:00etan, kultur etxean kasuaren gaineko egia aldarrikatzeko ekitaldia egingen da**

Etxarri Aranazko kultur etxean bihar elkartzen diren herritarrek Josu Zabala Salegiren heriotzaren inguruko egia jakin nahi dutela erakutsiko eta aldarrikatuko dute. Josu'20, egia jakin nahi dugu ekimeneko kideek azaldu dutenez, "egia jakitea, eskubidea izateaz aparte, ezinbestekoa da etorkizunerako. Egia ez jakiteak Josuren familia, lagun eta herrikideen mina biderkatzen du. Egia ezinbestekoa da aitortzan, erreparazioan eta ez errepikatze bermean oinarritu behar den bakea eraikitzeke. Egia ezinbestekoa da horrelako gertakari izanen ez dela bermatzeko".

Horregatik, "egiaren eskaerarekin bat egiten duten guztiei" Etxarrira joateko deia egin diete. Ekitaldian ekimeneko kide batek, Egiari Zor fundazioko kide den Ane Muguruza eta egia ezagutze-

ko ere borrokan ari den Orbaitzeta Zabaltza familiako Idoia hitz egingen dute. Biharko ekitaldian gainera, Egia jakin nahi dugu adierazpena publiko egingen dute. Haren bidez "gatazkaren konponbidean ardura duten eragile guztiak interpelatu" nahi dituzte.

## Gertaerak

1997ko martxoaren 23an Bilboko Korrikaren akabera festa hartu zuen. Josu Zabala Salegi egun hartan desagertu zen. Autopsiaren arabera hiru eguneroago hil zen, 26an. Zabalaren gorpua Debako Mendata puntan agertu zen. Bularrean tiro bat zuen eta aldamenean pistola bat zegoen. Gerora ETAK ohar bidez jakinarazi zuen Zabala erakundeko kide zela eta bahitu egin zutela. ETAK Zabalaren heriotzaren ardura Espainiako Estatuko Segurutasun Indarrei leporatu zien.

Ekimeneko kideek gogorarazi zuten, Eusko Jaurlaritzak Zabala bere buruaz beste egin zuela



Ekitaldia aurkeztu zuten hainbat herritarrek.

zabaldutako 1997an. Epaitegiaren ikerketan "suizidioaren hipotesia hankaz gora jarri zuten: gorpua agertu zen tokian ez zegoen odol arrastorik, egin ziren miaketetan bala-zorrorik ez zegoen aurkitu; Josuk jantzita zera matzan zapatetan itsaita zegoen lurra ez zegoen inguru hartakoa... Ikerketan azaleratutako

datuak bertsio ofiziala gezurtatzen badute ere, oraindik orain, 20 urte pasa direnean, ez dugu egia ezagutzen" gaitzatu dute ekimeneko kideek. Zabalaren kasua Estraburgoko Giza Eskubideen Auzitegiraino eraman zuten, baina ahalgintzazko guztiek oraindik ez dute emaitzarik eman.

## » Altsasu

## Dagoeneko edozeinek sina dezake gurasoen manifestua

Ferietako liskarrean auzipetuak daudenen gurasoek web orria zabaldu dute: [www.altsasugurasoak.com](http://www.altsasugurasoak.com). Haren bidez auziaren inguruan duten ikuspuntuak zabaldu nahi dute. Interneteko ataria ilbeltzaren 27an Altsasun aurkeztu zuten manifesturako sinadurak biltzeko tresna bada ere. Teknika akats bat izan zen eta herenegun sinatu zutenei berriro sinatzeko eskatu diete.

Gurasoen manifestua sinatzen dutenek eskatuko dute "proporzionaltasunaren, justiziaren eta ekitatearen printzipioak gailen daitezten eta galdegiten dugu terrorismo-delituaren kalifikazioa ezabatzeko, eskumena Iruñeko 3. Instrukzio-epaitegiari bueltatzeko eta, ondorioz, preso dauden gazteak aske uzteko". Gainera, agintari eskudunei eskatu diete (Fis-

kaltza Nagusia, Auzitegi Nazionala eta Nafarroako Probintzia-Auzitegia) norabide berean birplanteatu dezatela beren jarduna, eta herri-administrazio, hedabide, gizarte eta politika-eragile eta jendarteari ere eskakizun horiek bete ditzatela eskatu dute.

## Sindikatuaren babesa

Madriren edo Iruñean epaituko den erabakiko den Justizia Epaitegiaren parean kontzentratu zire gurasoak herenegun. Bigarren aldia da 15 egunetan Iruñeko epaitegiaren aurrean #Altsasu, ez da terrorismoa pankarta zabaltzen dutena. Altsasuko gazte auzipetuen gurasoek hainbat sindikatuaren babesa jaso zuten elkarretaratzean. Guztiek ere adierazi zuten instrukzioa ez zela inoiz Nafarroatik

## Diputatuek eta senatariek kasua garatzen ari den moduarengatik kezka adierazi dute.



Ahal Duguko, PdeCAT, ERC, EAJko, IUko, En Marea, EH Bildu eta Compromisoko 74 diputatuek eta 14 senatariek Altsasun gertatutakoaren inguruan adierazpena sinatu dute. Adierazpen bateratu horretan 88 hautetsiek "proporzionaltasunaren, justiziaren eta ekitatearen printzipioak gailen daitezten eta galdegiten dugu terrorismo-delituaren kalifikazioa ezabatzeko, eskumena Iruñeko 3. Instrukzio-epaitegiari bueltatze-

ko. Preso daudenak aske uzteko ere eskatu dute.

Hautetsiek, aldi berean, "agintari eskudunei eskatzen diegu (Fiskaltza Nagusia, Auzitegi Nazionala eta Nafarroako Probintzia-Auzitegia) norabide berean birplanteatu dezatela beren jarduna, eta Herri-administrazio, hedabide, gizarte eta politika-eragile eta jendarteari ere eskakizun hauek bete ditzatela eskatzen diegu".



25.URTEURRENAREN EDIZIO BEREZIA  
5.000 € arteko deskontua soilik hilabete honetan

Hyundaien 25 urte bete ditugu dagoeneko zure ondoan. Eta, denbora tarte honetan, munduko 5 lehenengo ekoizleetako bat bihurtu gara, 3. markarik fidagarriena eta 3 aldiz Espainiako kotxerik hoberenaren saria lortu dugu. Honengatik, eta gure urteurrena bukatu baino lehen, 25. urteurrenaren edizio berezia plazaratzen ospatu nahi dugu: ekipamendu bakarreko edizioa eta 5.000 € arteko dekontua eskeiniz. Hilabete honetan gure kontzesionarioa hurbildu eta ospatu gurekin

**HYUNDAI**

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • [www.autsanmiguel.com](http://www.autsanmiguel.com)



Hyundai Tucson Gama : CO<sub>2</sub>(gr/km) isurtzea: 119-147. Kontsumo mistoa (l/100km<sup>2</sup>) 4,6-6,3.  
Hyundai i20 Gama berria: CO<sub>2</sub>(gr/km) isurtzea: 110-130. Kontsumo mistoa (l/100km<sup>2</sup>) 4,2-5,6.  
Hyundai 20 Gama berria: CO<sub>2</sub>(gr/km) isurtzea: 97-102. Kontsumo mistoa (l/100km<sup>2</sup>) 3,7-4,8.

Hyundai i20 1.1 CRDI 75CV (55,2kW) 25. Urteurrenari aplikatu dakiokien deskonturik altuena. Promozio deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta Zure Hyundaiari berritu deskontua barne, ibilgailu zaharra entregatzerakoan, berriaren truke. Eskaintza 2017/03/27ra arte baliogarria. JD POWER 2016ren iritziak, 3. markarik fidagarriena. Komertzial garrantzia 5 urtez, kilometrajearik gabekoa, Hyundai ibilgailu berriendako da soilik, Hyundai sare ofizialean erositakoak, zerbitzuaren pasaportearen baldintzen arabera. Ikus daitezkeen modeloak: Tucson 25. Urteurrena, i20 25. Urteurrena, i20 N. Urteurrena. Bermearen baldintzak Hyundai kontzesionario ofizialen sarean edo [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es)-en kontsulta daitezke.

# 40 tanatorios

# IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



## Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

Zuk ereindako hazia udaberrero loratuko da.

**Nagoreren lagunak**

Bakaiku



## Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

Eskerrik asko, lagun, emandakoagatik.

**Ehiztari koadrila eta txabolako lagunak**

Bakaikun, 2017ko marsuaren 18an



## Jaime Celaya Auzmendi

I. urteurrena

Zuk utzitako hutsunea ez da inoiz beteko. Zu gabe bizitzea zaila egiten zaigun arren, zure alaitasunak eta kantuek laguntzen gaituzte.

**Itziar, Iñigo, Saioa, Aintzane, Arkaitz, Elene, Izaro eta Arane**

**Bakaiku, martxoak 26**

Hilak 26an, igandean, eguerdiko 12:00etan bere aldeko meza izanen da, Bakaikuko elizan.



## Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

Ez dago adiorik, ez dago ahantzirik, gaztaroko bizipenak gogoan betiko, zure irribarre adeitsua guk begiko.

**Zure kintak eta kintoa**

Bakaikun, martxoaren 18an



## Jaime Celaya Auzmendi

I. urteurrena

Zure oroimena gure artean daukagu egunero. Oso gogorra egiten zaigu zu gabe bizitzea, zu izan zarela gure eredu. Beti gure bihotzetan

**Iñigo, Saioa eta Aintzane, Arkaitz**

Bakaiku, martxoak 26



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

**Bidali mezua eskelak@guaixe.eus- era edo hots egin 948 564 275 telefonora**

## Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

Hau izango da zure etxea, txikitatik eta betiko. Faltan botako zaitugu

**Koxko Taberna**

Bakaiku

## Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen ta zuk emandakoa ez da inoiz itzaliko.

**Etxekoak**

Bakaikun, 2017ko martxoaren 18an

## Oroigarriak

**gk** KOMUNIKAZIOA

948 564 275

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**

**Astekarian:** Saldu/erosi, errentan eman/hartu, 8€ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

## LANA | NEGOZIOAK

### LAN ESKAINTZAK

**Uharte Arakilen Garbiñe Azurmendiren botikarako farmaziari bat behar da jornada osorako.** Kontratu mugagabea. Interesatuak deitu telefono honetara 675 551 510.

## IKASTAROAK

**Fakturak egiten ikasteko.** Nola diseinatu fakturak, zerga-betebeharrak betetzeko ikastaroa antolatu dute Cederna-Garalurrek eta Nafar Lansarek. Apirilaren 10ean, astelehenean, 10:00etatik 12:30era, Arbizuko Utzaganen. Izena ematea 948 567 010 edo [sakan.admon@cederna.es](mailto:sakan.admon@cederna.es)

## Altsasuko Musika eta Dantza

**Eskola.** 0-3 urte bitartekoentzat Musika Tailerra: maiatzaren 8tik 31ra

Altsasuko Musika Eskolan. Musikaren bitartez, haurren estimulazioa, bai guraso eta seme-alaben arteko harremana lantzeko eta gozatzeko aukera. Matrikulazio epea martxoaren 20tik apirilaren 7ra, eskolako ohiko ordutegian. 45 minutuko 4 saio. Prezioa 25 €.

## OHARRAK

**Olaztiko irakurle taldea.** Martxoaren 17an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko liburutegian elkartuko da eta Christopher Morley-ren "La librería ambulante" liburuz hizketatuko dira.

**Odol-emaileak.** Marsua: Irurtzunen, 21ean, 16:45-20:30. Etxarrin, 22an, 17:00-20:30. Etxarrin, 29an, 17:00-20:30. Apiribila: Olaztin, 25ean, 17:00-20:30

**Konpasio mojen 2. mendeurren ospakizuna.** Mosen Altsasuko ikaste-

txean izan zirenen topaketa antolatu dute apirilaren 8rako Altsasun. Bazkarira joan nahi dutenek M<sup>o</sup> Carmen Goikoetxeak eta Juli Alvarezek Laboral Kutxan zabalduko kontu korrontean 30€ sartu beharko dituzte, izen-abizenak adieraziz. Argazki erakusketarako materiala utzi nahi dutenek edo ospakizunaz gehiago jakin nahi dutenek [goilan@telefonica.net](mailto:goilan@telefonica.net) edo [iturri-txo90@gmail.com](mailto:iturri-txo90@gmail.com) e-postetara idatzi edo 679 103 032 telefonora hots egin dezakete.

**Etxarriko irakurle taldea.** Apirilaren 27an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranzko liburutegian elkartu eta Joseba Sarrionandiaren "Lapur banden etika ala politika" liburuz hizketatuko dira.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen

jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**GoiEner Iruñean.** Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.** Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarrokoekuskalkantu@gmail.com edo [amadominguez@tafallaikaastola.org](mailto:amadominguez@tafallaikaastola.org) e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) tele-

fonoetara hots egin dezatela

Setter amaren txakurkumeak oparitzen ditugu. Tel 659 232 878 (Pello)

## OPARITUTAKOAK

### JAIOTZAK

- **Maren Muñoz Fernandez de Garaialde y Lazkano,** martxoaren 14an Altsasun.
- **Eneko Senar Goikoetxea,** martxoaren 15ean Arbizun.
- **Soulaimane Hissi,** martxoaren 16an Altsasun.

### EZKONTZAK

- **Iker Palacios Andueza eta Eider Zufiaurre Garziandia,** martxoaren 18an Lakuntzan.

### HERIOTZAK

- **Eduardo Olaiz Urió,** martxoaren 18an Urdiainen.
- **Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea,** martxoaren 18an Bakaikun.
- **Benigno Urdiain Zubelzu,** martxoaren 19an Altsasun.
- **Celestino Goikoetxea Ollakindia,** martxoaren 22an Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

## Pala



Finalistak, Ansorenarekin. UTZITAKOA

## Parot eta Eizagirre Euskal Herriko txapelkunak

Gure Pilotakoek Mendinueta eta Eskala taldekideei 29 eta 30 irabazi zieten

Martxoaren bigarren asteburuan Euskal Ligako finalak jokatu ziren. Tartean, emakumezkoen paleta goma txapelketako finalak jokatu ziren Etxarri Aranatzan. Bigarren mailako Open mailako finalean, Etxarri Aranazko Gure Pilota klubeko Olaia Eizagirrek eta Izar Parotek jantzi zuten txapela, euren taldekide Uxue Mendinueta eta Ane Eskalari soilik tanto bateko aldearekin irabazi eta gero (29 eta 30).

## Aizkora

## Juanjo Erdozia Urrezko Banakako Aizkolarari Txapelketan

Igandean, 12:00etan, Agurainen

Asteburuan hasikoda Urrezko Banakako Aizkolarari Txapelketa, Eusko Label Saria. Igandean, 12:00etan, Aguraingo pilotalekuan, bigarren jardunaldia jokatu da. 8 aizkolarari lehiatuko dira, Juanjo Erdozia etxarriarra tartean. David Naredo, Daniel eta Ruben España anaiak, Asier Armenia, Anton Lakobuti, Eloi Kortxero eta Ramiro Llanos izango ditu aurkari. Irabazten duen aizkolaria txapelketan jarraitzeko aukera izango du.

## Pilota

## GRAVNI: Nafarroak Araba hartu zuen menpean

Jokatutako 33 partidetatik 23 irabazi zituen Nafarroak. Aste honetan nafarrek Bizkaia izango dute aurkari

Asteburuan GRAVNI federazioen arteko txapelketako 2. jardunaldia jokatu zen. Arabaren kontra aritu zen Nafarroa. Nafarroa gailendu zen; jokatutako 33 partidetatik 23 Nafarroak irabazi zituen eta 10, aldiz, Arabak.

Asteburuan Nafarroak Bizkaia hartuko du. Etxarri Aranazko frontoian emakumezkoen paleta gomako partidak jokatu dira, larunbatean, 10:00etan.

## Pilota

## Karanbolaren zain

Elezkanok eta Zabaletak konplikatua dute Binakako finalean egotea: Bengoetxea-Larunberri irabazi behar diete, sei tanto edo gehiagoren aldearekin, eta Olaizolak eta Untoriak Irribarriaren eta Rezustaren kontra galdu beharko lukete

Horrela daude Jose Javier Zabaleta eta egun lesionatua dagoen Danel Elezkanok, Binakako finalerdietako ligaxkak hirugarren eta azken jardunaldiak zein karanbola ekarriko dituenaren zain.

Izan ere, Binakako Finalerdietako ligaxkako bigarren jardunaldian Elezkanok eta Zabaletak galdu egin zuten Olaizola II.aren eta Untoriaren kontra (22 eta 15). Gauzak horrela, Irribarriak eta Rezustak 2 puntu dituzte, Olaizola II.a Untoriak eta Bengoetxea VI.a Larunbek puntu bana eta Elezkanok II.ak eta Zabaletak ez dute punturik. Asteburuan finalerdiko 3. eta azken jardunaldia jokatu da eta, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago, denok dute finalerako

### Binakakoa: finalerdietako 3. jardunaldia

**Bengoetxea VI.a-Larunbe / Jaka-Zabaleta** (larunbatean, 17:45ean, Labriten. ETB1)  
**Irribarria-Rezusta / Olaizola II.a-Untoria** (igandean, 17:00etan, Bizkaian. ETB1)

sailkatzeko aukeraren bat.

### Dena zabalik

Hanka t'erdia finalean dutenak Irribarria eta Rezusta dira. Igandean Olaizola II.a eta Untoriari irabazten badiete, finalerako sailkatuko dira. Galduko balute eta larunbatean Elezkanok ordezkatuko duen Jakak eta Zabaletak Bengoetxea VI.a eta Larunbe menpean hartuko balituzte, finalerako ere sailkatuko liriteke gipuzkoarrak. Eta, nahiz eta Bengoetxea VI.ak eta Larunbek irabazi, Irribarriak eta Rezustak 11 tanto egingo balituzte ere finalera sailkatuko liriteke.

Olaizola II.ak eta Untoriak Irribarria eta Rezusta irabazten badiuzte finalean egongo dira, koefizienteen batuketa dela eta. Bestetik, finalean egoteko, Bengoetxeak eta Larunbek Jaka eta Zabaletaren kontra irabazi beharko lukete, eta Olaizolak eta Untoriak galdu beharko lukete. Bukatzeko, finalean egoteko konplikatua dute Elezkanok eta Zabaleta dira. Elezkanok ordezkatuko duen Jakak eta Zabaletak Bengoetxea eta Larunberri irabazi behar diete bai ala bai, 6 tantoko aldearekin, eta, horretaz gain, Irribarriak eta Rezustak Olaizola II.a eta Untoria hartu beharko lituzkete menpean.

Beraz, azkeneko jardunaldi honek erabakiko du dena eta emozioa pil-pil egonen da. Euren bizi-tzak karanbolari onena opa die-

## Mendia

## Eman izena: Hiru Mendi Zerrak apirilaren 1ean

Izena ematea zabalik dago martxoaren 27ra arte

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak, hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin X. Hiru Mendi Zerrak mendi ibilbidea antolatu du apirilaren 1erako. Ohikoa denez, bi ibilbideren artean hautatu ahal izango dute mendizaleek: Hiru Mendi Zerrak, ohiko ibilbidea (48 km, 2.700 m desnibela) edo ibilbide laburra (26 km, 1.200 m desnibela).

Hiru Mendi Zerrak mendi ibilbidea apirilaren 1ean burutuko da, goizeko 7:00etan Altsasuko Gure Etxeatik abiatuta. Proba ez lehiakorra da eta Urbasa-Andia, Altzania eta Aralar mendizerretatik pasatzen da, paraje zoragarrietatik barna.

Ibilbidean ondoko kontrol eta hornidura guneak egongo dira: Gure Etxea (irteera), Urbasa, Ziordia, Sorozarreta, Sarabe eta Gure Etxea (helmuja).

Hiru Mendi Zerrak Nafarroa-



ko Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien I. Txapelketarako baliagarria da eta Euskal Herriko Ibilbide Luzeen Zirkutuan sartuta dago.

### Izena ematea zabalik

Mendi ibilbide eder honetan parte hartzeko izena ematea zabalik dago martxoaren 27ra arte. Horretarako [www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com) edo [www.mendizmendi.com](http://www.mendizmendi.com) webgune-eta sartu behar da (13 euro). Ordainketa egiterakoan partaidearen izena eta abizena aipatzea beharrezkoa dela nabarmendu du antolakuntzak.

## Zabaleta: "Ea zorte pixka batekin lortzen dugun"



Aukeratutako pilotekin konforme daude pilotariak. Jakak eta Zabaletak Etxarrego atzeleraren gustukoak aukeratu zituzten. "Sei pilotak politak dira jokatzeko, beraien azkarragoak dira, gureak lasaiagoak, baina guztiak onak. Igual errematatzeko besteak hobeak dira, gantxoak eta egiteko, baina guk hautatutakoak ere gustatzen zaizkio Jakari. Ni saiatuko naiz gure pilotekin ongi ibiltzen eta dominatzen. Pena da Danel partida garrantzitsu honetan ezin egotea, baina Jaka partida erabakigarri hau jokatzeko pilotari ona da eta gustura nago berarekin. Ea nolako partida ateratzen zaigun. Itxaropena dugun? Saiatuko gara. Larunbatean dena ematera aterako gara eta ea zortea alde dugun, eurak partida ona egiten ez duten eta guri egun borobila ateratzen zaigun. Ea hala den" azaldu zuen Zabaleta.

Jakak azaldu zuen arerioen pilotak gustukoago dituela, baina Zabaletari komeni zaion materiala hautatu zutela. "Gure bikotearen zama Josek eraman behar du, eta bera eroso egotea, gozatzea eta agintzea da garrantzitsua. Ea agintzea lortzen duen eta ni sor daitezkeen aukerak aprobetxatzeko gai naizen. Hori izango da gure jokoa, Joseren jortzea eta agintea probestu eta aurrean errematatzeko saiatzea. Partida hau final garrantzitsua da, eta zaila dugu. Gauzak ongi egiten eta irabazten saiatuko gara" nabarmendu zuen Jakak.

gu Jakari eta Zabaletari.

### Jaka Elezkanoren ordez

Elezkanok ez ditu bere ezker esku-ko arazoak gaintu eta Erik Jakak jokatu du, bihar, bere ordez. Txapelketa honetan 4. aldia izango da Jakak Elezkanoren ordezkatzen duena.

### Martija Zilarrezkotik kanpo

Arteaga II.ak eta Erasunek Peña II.aren eta Salaberriren kontra jokatu dute Zilarrezko Binakako finala, Tolosan, apirilaren 1ean. Errandonea eta Julen Martija etxeberriarra, finalerdietako ligaxkako partida guztiak galduta, txapelketatik kanpo geratu dira.

## Futbol 7

## Altsasukoak Aske Futbol 7 Lehiaketa antolatu dute

Apirilaren 15ean jokatu da, Dantzalekuko zelaietan, 8:00etatik 20:00etara

Altsasukoak Aske, Etxera! ekimenak Futbol 7 Lehiaketa antolatu du apirilaren 15ean, Altsasuko Udalaren laguntzarekin. Txapelketa Dantzalekuko zelaietan jokatu da, goizeko 8:00etatik 20:00ak arte. Txapelketa polita antolatzea da asmoa, ahalik eta talde gehiagok parte hartzea. Lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuendako sariak izango dira.

### IZENA EMATEA ZABALIK

Apirilaren 9ra arte eman daiteke izena, ondorengo telefonoekin WhatsApp bidez, harremanetan jarrita: 608 161 237 edo 676 927 082. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu.

## Irristaketa

## Txapelkun sakandarrak Nafarroako Pista Txapelketan

Ioseba Fernandezek urrezko domina, Ander Chamorrok eta Unai Villalobosek zilarrezkoa eta Anne Lapuentek brontzezkoa lortu dituzte

Asteburuan Nafarroako Pista Irristaketa Txapelketak jokatu ziren Barañaingo Lagunak patinodromoan. Nafarroako 9 irristaketa klubetako 233 patinatzaile lehiatu ziren. Ioseba Fernandezek (Berrero Ere) 1.000 linea proban urrezko domina lortu zuen eta Nafarroako txapelketa izan zen.

Barañaingo Lagunak klubean dabil-tzansakandarrak primeran ibili ziren. Jubenilen mailan Ander Chamorrok zilarrezko domina lortu zuen 300 m erlojupekoan eta 1000 m linea proban. Unai Villalobosek, bere aldetik, zilarrezko domina jantzi zuen 500 m sprintean, 5.000 puntuetan eta 10.000 kanporaketan. Horretaz gain, brontzezko domina lortu zuen 300 m erlojupekoan eta 1000 m linean. Haurren emakumezkoen mailan Anne Lapuentek brontzezko domina jantzi zuen 300 m erlojupekoan.



## Duatloia

# Orain Arbizun

153 duatleta daude izena emanda bihar, larunbatean, 15:30ean jokatuko den 21. Arbizuko Duatloian aritzeko. Goizeko 10:00etan V. Arbizuko Haur Duatloia egongo da jokoan (145 duatleta)

Arbizuko Udalak antolatuta, Arbizuko 21. Duatloia jokatuko da bihar, larunbatean, 15:30ean. Proba antolatuzeko Sakanako Triatloi Taldearen, Sakanako Mankomunitatearen, Nafarroako Triatloi Federazioaren, Arbizu Kirol Elkartearen, Aralar Txirrindularitza Taldearen eta hainbat babesleren laguntza izan dute. Proba Nafarroako Txapelketarako eta Euskal Herriko zirkuiturako baliagarria da.

## Goizean 145 neska-mutiko

Goizeko 10:00etatik aurrera V. Arbizuko Haur Duatloia jokatuko da, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak eta haurrak lehiatuko dira, 5-14 urte bitarteko neska-mutikoak, Arbizuko herri

## No drafting



Txirrindularia proban duatletek ezingo dute aurreko edo ondokoaren gurpilari lotuta joan. Hau da, ezin da draftinga egin edo besteek egindako lanaz aprobetxatu. Aurrean doan txirrindularia 7-10 metrora izan behar du duatletek, eta alboan dutena gutxienez metro batera. Distantziak betetzen ez dituztenek 2 minutuko zigorra jasoko dute.

gunean prestatutako zirkuituan. 145 duatleta daude izena emanda.

## Arratsaldean nagusiak: betikoak, herrikoia edo erreleboka

Kadeteak, juniorrak eta eliteak arratsaldean, 15:30ean, lehiatuko dira. 153 duatleta daude izena emanda. Hiru aukera izango dituzte. Batetik, betiko ibilbidea izango da -8 km korrikari, 32 km bizikletari eta 4 km korrikari-. Ibilbide gogorra, Lizarragako Katea igo

behar da bitan, bizikletari, eta haizeak jotzen badu oso gogorra izaten da. Askorendako luze egin daitkeelakoan, proba herrikoia prestatu dute, ibilbide bera izango duena baina distantzia erdia -4 km korrikari, 16 km bizikletari eta 2 km korrikari-. Ibilbide hau kadeteek eta juniorrek ere osatuko dute. Horretaz gain, Arbizuko duatloia erreleboka egiteko aukera ere egongo da, hau da, batek korrika eta besteak bizikletaz egiteko auke

ra. Bikoteak mistoak ere izan ahal dira. Bukatzeko, paraduatletek ere badute proban parte hartzeko aukera -4 km-16 km- 2 km-.

Emakumezkoak 15:30ean abiatuko dira, gizonzkoak 15:35ean eta kadete, paratriatleta eta proba herrikoian parte hartuko dutenak 15:45ean.

Guztira 298 duatleta daude izena emanda. Iragarpenak prezipitazio arinak iragartzen ditu; hala ere, lasterketa polita eta lehiatua espero da.

## Sariak

Lehenengo gizonak eta emakumeak 100 euro, txapela eta garai-kurra jasoko dituzte, bigarrenek 75 euro eta garai-kurra eta hirugarrenek 50 euro eta garai-kurra. Horretaz gain, erreleboko eta paratriatletetako lehenek Arbizuko produktuen loteak jasoko dituzte Arbizu, Laketa eta Florensen eskutik. Aipatzekoa da partaide guztiek txistorra jasoko dutela dortsala bueltatzerakoan. Horretaz aparte, duatleta guztien artean egondiak zozketatuko dira Arbizuko eko kanpinean eta Olatzea Hotelean. Bukatzeko, auzatea izanen da.



## Sakandarrak VII. Altsasu Duatloian

### Gizonzkoak:

1. Pello Osoro (Delteco Eibar)	1:04:39
4. Sergio Garcia de Eulate (Sakana)	1:05:19
5. Mikel Astiz (Saltoki)	1:05:26
15. Felix Benjumea (Saltoki)	1:07:58
18. Mikel Sarasola	1:08:35
19. Fco. Javier Gomez (Sakana)	1:09:51
20. Juan Luis Maiza (Sakana)	1:09:56
24. Aitor Mozo (Sakana)	1:10:14
25. Javier Borrega (Sakana)	1:10:18
26. Jose Ignacio Mikeo (Hiruki)	1:10:24
29. Mikel Lakuntza (Sakana)	1:10:57
30. Isidro Asurabarrena (Sakana)	1:11:01
35. Ivan Sobredo (Sakana)	1:13:09
36. Juan Carlos Gomez (Sakana)	1:13:09
40. Iñaki Alvaro (Sakana)	1:14:23
60. Iñaki Gallego (Sakana)	1:19:57
66. Eneko Goñi (Mugarra)	1:21:53
78. Peio Bergara (Sakana)	1:26:24
81. Ander Goñi (Mugarra)	1:28:36

### Emakumezkoak:

1. Lourdes Oiartzabal (Antxintxika)	1:16:36
-------------------------------------	---------

## Sergio Garcia de Eulate izan zen lehen sakandarra, helmuga laugarrena

Aurreko urtean elurratik bertan behera geratu eta gero, aurten VII. Altsasu Duatloia arazorik gabe burutu ahal izan zen eta eguraldia lagun, gainera. Eguzkia izan zuten bidaide duatloian parte hartu zuten 128 duatletek. Aurretik 140 kide zeuden izena emanda, 128k hartu zuten irteera eta, azkenean, 120k lortu zuten proba bukatzea.

Altsasukoa Sprint Distantziako proba zen: 5 km korrika, 22 km bizikletari, Altamira igoera tartean, eta 2,5 km korrika. Proba, Nafarroako Duatloi zirkuituko 3. proba puntuagarria zen eta, aldi berean, Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa zen.

Proba hasi eta berehala hartu zuen alde Pello Osorok (Delteco). 25 urteko eibartarra aurreko astean bigarrena sailkatu zen Izaban eta Neguko Triatloiko Euskadiko Txapelketako lehena izan zen. Altsasukoa helmugara bakarrik

# Osoro eta Oiartzabal nagusi Altsasun

## Nafarroako sprint txapelketako hainbat sari Sakanara



Altsasuko proba, aldi berean, Nafarroako Sprint Txapelketa zen eta makina bat sari etorri ziren Sakanara. Alberto Barberena eta Elisa Ester Enmanuel izan ziren Nafarroako txapeldunak. Sergio Garcia de Eulate hirugarren nafarra izan zen. Beterano II mailako txapelduna Francisco Javier Gomez izan zen eta Beterano III. mailakoa, aldi, Peio Bergara. Paratloi mailako txapelduna Iñaki Gallego Rosado izan zen.

iritsi zen (1:04:39). "Proba hasi eta kilometro t'erdia bakarrik geratu naiz. Bizikletari, igoera ongi ibili naiz baina bukaera haizea kontra genuen eta harrapatuko nindutela uste nuen" azaldu zuen. 12 segundora Errela taldeko Alberto Barberena sartu zen eta Tri Ur Gazia taldeko Joseba del Barrio izan zen hirugarrena (1:05:07). Lehen sakandarra laugarren postuan sartu zen, Sakana Triatloi taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra (1:05:19).

Emakumezkoetan hasieratik alde hartu zuen Lourdes Oiartzabal (Antxintxika) taldeko veteranoak. 43 urteko lezotarrak iazko lesioa gainditu duela erakutsi zuen (1:16:36). "Gogorra, baina oso gustura" azaldu zuen.

Bestalde, paratriatleta mailako PTS5 mailako txapelduna Sakana Triatloi Taldeko Iñaki Gallego izan zen, eta paratriatleta mailako PT


mailako txapelduna, Mikel Bidaurre (2:05:10). Juniorretan Eneko Izagirre (Antsoain) gailendu zen (1:08:24) eta kadeteetan Alejandro Iturbide (Aranguren, 1:10:23). Sakana Triatloi taldeko Fermin Azkargorta 6. kadetea izan zen (1:14:51).

Sakana Triatloi Taldearekin, 100 boluntario inguru aritu ziren antolakuntza lanetan.

## Nafar Kirol Jolasak: Ekain eta Nahia Imaz txapeldun

Goizean Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak ziren lasterketak jokatuko dira. 100 duatleta inguru lehiatuko dira. Sakana Triatloi Taldekoek lan bikaina egin zuten. Aurrebenjamin mailan Oihan Andueza hirugarrena sailkatu zen, benjaminen emakumezkoetan Ane Iturrioz bigarrena sartu zen eta benjaminen gizonzkoetan Ekain Imazek irabazi zuen eta Alain Razkin bigarrena sailkatu

zen. Kimuen gizonzkoetan Hego Lakuntza laugarrena sartu zen, haurren emakumezkoetan Nahia Imazek irabazi zuen eta haurren gizonzkoetan Xabier Borrega bederatzigarrena sailkatu zen.



# Non erabili

## ARKANGOA TABERNA

ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

## GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

Produktua opari.

## PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

## TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

## CLINKER

OLAZTI

Menu bereziarekin txupittoa doan.

## SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

## BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

## IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilizko.

## URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%20ko deskontua kontsultan.

## BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€  
948 564 275

## Granizo, Azkue sariak pareka



**Euskaltzaindiak antolatutako lehiaketan narrazio eta olerki sailetan hirugarren saria eskuratu ditu**

Idazle gazteak literaturara erakartzeko helburuz antolatzen du Euskaltzaindiak Azkue Literatur Saria, poesia eta narrazio sailetan. Joan den urtean lehiaketara 175 lan aurkeztu ziren, 2015aren bikoitza. Epai-lek lanen kalitatea eta tonu berritzaile nabarmendu dute. Sariak gaur banatu dituzte Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Gorka Martinez BBK fundazioko buruak.

B mailako (14 eta 17 urte artekoak) narrazio eta olerki sailetan Idoia Granizo Uribarrenarendako izan dira hirugarren sariak. *Bide zuzenetik oker* idatziak eman dio saria aurreneko sailean. Granizok azaldu digunez, “umeek jasaten duten presioa” dalanduduena gaia. “Protagonistak gurasoen aldetik presioa jasaten du. Gurasoek etorkizuna opatzen diote eta umea presionatuta sentitzen da. Presioa edonon izan daiteke”. *Itsasoak sutudaitetzeke* poesia sortarekin ere hirugarren saria eskuratu du. “Dagoeneko maitasun harremana ez den baten ingurukoa da, pixka bat nostalgiatik kontatuta”. Granizok joan den urtean sariketa berean olerki onenaren saria jaso zuen.

### Sortze prozesua

Granizok “momentuaren eta gaiaren arabera” narrazioaren eta olerkiaren alde egiten du idazterakoan. “Ideia hartzen duzu eta agian momentu horretan poesia-rako zaude gehiago eta poesia egiten duzu. Gaiaren arabera, zeri dagokion hobe. Narrazioa irekiago da. Poesian irudiak bilatu behar dituzu, batzuetan hitzak neurtu”.

Altsasuarrarendako idazten jartzea “batzuetan zaila da. Zerbait idatzi nahi duzu eta ez da ateratzen. Beste batzuetan, esaldi bat edo paragrafo bat datorkizu eta, hortik aurrera, gutzia ateratzen zaizu”. Idatzitakoa behin eta berriro irakurtzen du, “dezente dagoela uste dudanean Ekaitz Goikoetxeari pasatzen dizkiot eta berak proposamenak egiten dizkit. Nik batzuetan hartu besteetan ez”. Atarrabiako euskara irakaslea da Goikoetxea, “idazten hasi nintzenetik oso gertuko izan dudana lagun bat. Beti laguntzen. Bertsotan ere laguntzen dit, bertsolaria delako”. Bertsoaletasunak idazteko baliagarria dela esan digu, “gauza batek bestea aberasten du”. Altsasuarrak “argi” dauka idazten segituko duela, baina “sari-ekin ez dut nire burua presionatu behar”.

Band, Willis Drummond, Sorkun, Anari, Skontra, Ken Zazpi, Gati-lazo, Su ta Gar, Zartako-K, Enkore, Dj Reimy, El Sonido de la Metrala, Reviverb Live, Trikidantz, Mafalda, Gatibu, Gozategi, Liher, Porrotx, Porco Bravo, Juantxo Skalari & La Rude Band eta Dremen. Aipatzekoak dira Arrasateko Governors eta Aragoiko El Corazon del Sapo taldeen itzulerak. Emanaldi bakarria emanen dutenen zerrendara Betagarri talde gasteiztarra gehituko da, Obrint Pas taldeko Xavi Sarria eta Miquel Gironesekin batera ariko dena bi taldeen kantak eskainiz.

### Hatortxu Rock-en guztira 85 talde ariko dira

Antolakuntzak 34 talde berri-zen izenak ezagutzera emanenez, guztira 84 talde dira. Horiei Sakanako Pop-Rock Lehiaketan sari berezia eskuratzen duen taldea gehitu beharko zaio. Baita Porrotx pailazoa ere. Izen berriak honakoak dira: Esne Beltza, Berri Txarrak, Jo & Swiss Knife, Arkada Social, Vendetta, Josetxu Piperrak & The Riber Rock Band, Doctor Deseo, Sara Hebe, Bultz, Itaca

## Finalerako azken txartelak? Agoitzen

Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken final-erdia jokatu da Agoizko kultur etxean, igandean, 17:30ean. Saioak finalerako zuzeneko txartel bat banatu du. Baina, gainera, finalerako gainontzeko bost postuak lortzeko erabakigarria izanen da etzikoa. Izan ere, lortutako puntu araberak, bost bertsolari finalerako izanen dira. Behin behineko sailkapen horretan, Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra bigarren dago, Julio Soto Ezkurdiaren atzetik.


Agoitzen beste sei bertsolari ari-

ko dira: Aimar Karrrika, Julen Zelaieta, Joanes Illarregi, Eneko Fernandez, Patxi Castillo eta Oier Lakuntza. Esan bezala, haien lanak erabakiko du txapelketan aurrera egin edo aurtengo ibilbidean han gelditzen den. Bertsolariek honako lana egin beharko dute: binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean eta kartzelako lana (banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian eta, banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian).



## bazterretik

Juankar Mugartza



### Irudimena lantzen armen hizkuntzari agur esaten

Sakana irudimenaren lurraldea da eta, ondorioz, irudimena lantzen badakigu. Hori dela eta, 1992tik hasita eta 18 ediziotan (adinez nagusi egin arte) alor hau lantzeko sariketa batzuk antolatu dira Sakanako Ilkastetxeetan. Ideiaren sortzaile eta sustatzailea Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzua izan da. Dena den, ideia bera ere ez zen berria, irudimena lantzearena bai, baina idazmena lantzearena ez. Izan ere, Mankomunitateak berak antolatutako zituen 1990ean eta 1991n beste literatur sariak, antze-

ko filosofian, baina Sakana Idazten lelopean. Noizbait atal honetan bertan aipatu den “Umeen deia” liburu sortaren jarraipena bezala uler daiteke honako hau. Sakanako haurrek idazteko aukera izan dutenean ez dute batere gaizki egin... Gehiago esangonuke: oso ongi egin dute beti. Beraz, sari horiek aurrekariak izan zituzten, baina haiek ere izan ziren aintzindariak beste batzuentzat eta irudimena lantzeko une gehiago egondiragure historiari txikian. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua, beti eraginkor eta eragile, euskara sustatzeko ahaleginean, inoiz ere geldirik gelditzen ez denak, bestesari bateratu zuten handik gutxira: “Maria Markotegi” deitutakoa, Sakanako Eskolarteko Literatur Lehiaketa. Maria Markotegi behar bezain eza-guna eta aitortua izan ez den Etxarriko idazle bat izan zen, 2005ean zendua. 1998an argitaratu zuen *Izarratu* eleberri laburra (Txalaparta argitaletxea), irakurri beharreko Haur Literaturaren ezinbesteko liburua. Idazle gazte haiek egun batean koxkortu ziren eta haurrak izateari utzi zioten, profesional helduak bilakatu: kazetariak, abokatuak,

## Hiru abesbatzen kontzertuak bihar

Nafarroako Abesbatzen Federazioak antolatutako Nafarroan Abesbatzak zikloaren barruan, Erkudengo Ama abesbatzak kontzertua eskainiko du Uhartea Arakilgo elizan larunbatean, 19:30ean. Ziklo beraren barruan, Oibarreko Aritza korala Lakuntzan ariko da larunbatean, 19:00etan kultur etxean. Fernando Otano Navarrok zuzentzen duen abesbatzak polifoniak eta folkloreak osatutako erreperitorioa eskainiko du. Azkenik, Lautada Abesbatza musika sakroko eskaintza ekarriko du Gasteiztik Altsasura, larunbatean, 20:30ean, elizan.

## Tarima Beltza Deikaztelun

Tarima Beltza antzerki taldeak *Falstaff no cree en la otra vida* antzezlan larunbatean, 20:00etan, Deikaztelun jokatu du. Francisco Javier Gil Diez-Condek William Shakespearek *Enrike IV.* obratik hartu zuen Falstaff pertsonaia hartu eta obra sortu zuen, Tarima Beltzak moldatu duena.

sendagileak, unibertsitateko irakasleak, etab. Hain zuzen ere, horietako bat, Maider, nire laguna da unibertsitatean. Sakandar batzuk bagaude Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Larraza, Razkin eta Zufiaurre eta Perez de Villarreal urdintarrak. Hain zuzen ere, Maider bera izan da 1991ko liburua oparitu didana. Azalean eta kontrazalean haurra zelarik berak egindako marrazki ederrak, barruan bere ipuin sarituak, Ione Goñi Errazkin, Eider Garde Mazkieran, Igone Goikoetxea Motino (Urdaingoidazle ezzaguna), Oihane Zufiaurre (Kaxkarin), Ion Igoa Etxarri (Bierrik), Txarro Ondarra Erdozia (Oner), Juan Pablo Santano (Eate), Isabel Bengoetxea Azpirotz (Olivetti), Mikel Reparatz Extramiana (Inguma, ETBko korrespondentsala nazioartean) eta Maider Perez de Villarrealen (Kuzkixa) beraren Misketsi pertsonaiaren abenturekin batera. Fantasiaren herritik S.O.S. bidaltzen digu Misketsik irudimena landu dezagun arazoak gaintzeko eta irtenbideak bilatzeko. Armen hizkuntzari agur esateko ordua iritsi den garai honetan, gehiago entzun beharko genieke haurrei.

## Irurtzungo antzerki tailerraren lau oturuntzak

**Gaur, 20:00etan eta 22:30ean; martxoaren 25ean, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 26an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean**

**D**ozena bat aktore eta Angel Sagues zuzendari eta dramaturgoa aste osoa entseazten aritu dira. Guztia gaurko mus-tutzea behar bezalako izan dadin. Irurtzungo antzerki tailerrak *El Banquete* antzezlanaren lau emanaldi eskainiko ditu asteburuan. Bertolt Brechten lan batean inspiratuta, Saguesek egokitzapen “nahiko librea” egin du, “Irurtzunerako erokeria berezi bat”.

Ezkontza bateko oturuntzan kokatzen da akzioa. Beraz, jange-la baten itxura hartuko du ager-tokiak. Hara iritsiko dira ezkon-gaiak eta ezkontzako gonbidatuak, senideak, lagunak “ eta alu zikin madarikatu guztiak. Guztiz jota daude”. Mahaira eseri eta cateringeko chefak harrera egin eta baz-kari ona opa egin ondoren, “nahi-ko ero hasiko da dena eta eroago bukatuko da”, esan digu Saguesek. Bazkariak aurrera egin ahala bakoitzaren nortasuna, “eromena, hemen zer egiten duen erakutsi



beharra” azalduko da.

Ziurtatu digunez, eszenaratzea “fantastikoa, surrealista” da. Tailerrekoek aurreratu dutenez, “azkenean, banketea zentzugabe-keriez beteriko zeremonia bila-katu da. Bakoitza bere istorio pro-pioa baitu”. Baina oturuntzaren zein unetan jakinen dugu uneoro, chefak aldi behin agerraldiak egin eta dastatuko diren platerak aurkeztuko baititu.

### Emanaldi gehiago

Asteburuko lau emanaldiez apar-

te, Irurtzungo antzerki tailerrak *El banquete* obra, gutxienez, Garesen, Orkoien eta Etxaurin jokatu-tuko du. Hura prestatzen lastaila akaberan hasiziren. Ordutik, aste-azkeneko 17:30etik 19:30era entse-atzera elkartu dira aktoreak eta zuzendaria. Joan den urtean bai-no bi aktore gehiago daude, baina zerrenda horretan 2016arekin alde-ratuta hiru aurpegi berri daude (Goio, Javier eta Carolina). Hala ere, Saguesek azaldu digunez, “eskarmentua dute. Eusten dion talde bat dago, oinarria mantentzen da”.

## Aktoreak



**Txus Abad.** Gonbidatutako emakumea. Kaskagorra eta gorrotagarria. **Peio Alzueta.** Emakumearen senarra. Emaztea ahal duen bezala jasaten du. Haserre bizian daude.

**M<sup>a</sup> Eugenia Barroso.** Emaztegia. Simplea. Senargai maite du. Elkarrekin etxe berria jaso nahi du.

**Goio Fernandez.** Aitona. Dibertigarria. Erotomanoa.

**Txeli Garcia.** Amaren aldetik, senargaiaren amona. Arrosa-urez zipiritzen du dena.

**Javier Gonzalez.** Senargai. Dene-tarako gizona. Bere etxea eraikitzen du.

**Jose Ramon Irure.** Emaztegiaren aita. Bere pasadizoak kontatzen ditu. **Carolina Leiba.** Emaztegiaren ahizpa. Ahal duen guztia amorrarazten du.

**Genma Matxain.** Emaztegiaren laguna. Erromantikoa. Emozio nobleak ditu.

**Tere Otxoa.** Senargaiaren emazte-gai ohia. Oso haurdunua.

**Meghan Sapp.** Cateringaren buru. Denetarako prest. Behar denaz jantzen da.

**Zuriñe Serrano.** Senargaiaren arre-ba. Neska berezia, lolita modukoa. Oso bihozbera eta gozoa.

## Banda eta musika eskolako ikasleak elkarrekin

**Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean**

**H**aize Berriak banda eta Altsa-suko Musika eta Dantza Eskolako 28 ikasleek Udaberriko jaialdia eskainiko dute elkarrekin. “Bosturte edo gehiago badi-ramusika eskolako ikasleekin hala-ko emanaldirik egiten ez genuela. Aurreko zuzendariarekin gehiago egiten genituen”, azaldu digu ban-dako kide Josu Rubiok. Bandaren eta musika eskolen arteko lotura sendotu nahi dute, “haien ikaslee-kin banda elikatuko dutelako”.

Emanaldiari dagokionez, Rubiok aurreratu digu musika eskolako hirugarren mailan edo

goragokoetan ari diren ikasleak joko dutela Haize Berriak banda-rekin; saxofoikoak 4, klarineteko-ak 6, bateriakoak 5, zeharkako txi-rulako 7, tronboiko 3 eta bonbar-dinoko 3. “Jaialdiaren hasieran ikasleak bandako euren kordako-ekin ariko dira, ensemble modu-ra joz”. Hala, haize metalak, saxo-foiak, klarineteak... agertokitik pasatzen joanen dira, eskolako eta bandako kideen talde txikiak. Elkarrekin hainbat estilotako bina pieza joko dituzte, rocka, filmeta-ko soinu bandak eta beste. Eman-aldia musikari guztiak eszenan daudela despedituko da; Erdi Aro-ko suite eta Karibeko piratak pie-zak joko dituzte.

### Banda gaztea buruan

Sakanako musika banda ibarre-ko musika eskolekin harreman-ent dago, banda gaztea sortu nahi baitu. Rubiok esan digunez, “musi-kariak badaude, baina desoreka dago”. Bandako kideak azaldu duenez, “modaren arabera, musi-ka eskolatan instrumentu batzue-tan ikasle asko daude eta beste batzuetan gutxi. Adibidez, orain akordeoia izan daiteke eta gero txi-rula. Baina txirulekin bakarrik ezin dugu banda osatu”, gaztiga-tu du. Konponbidea “erabaki poli-tikoa” dela esan du Rubiok, “musi-ka eskolatan instrumentu ikasle-en kopurua orekatu behar da”.

Bitartean, Haize Berriak ban-



dako kideek euren aldetik, matri-kulaziogaraian ikastetxeetan era-kustaldiak egiteko asmoa dute.

Musika tresnak ezagutarazi eta nahi luketen oreka horren alde euren ahalegina egiteko.

## Gobernuaren bizikidetzari buruzko jardunaldietan Arretxe

**N**afarroako Gobernuak *Bizikidetzaren* erin. *Begiratu bat artearen bidez* leloarekin, Bakeari, Bizikidetzari eta Giza Eskubideei buruzko II. Jardunaldiak antolatu ditu; atzotik apirilaren 6ra izanen dira ekintzak, pertsonen duintasunagatik errespetuari eta Giza Eskubideen defentsari buruzko hausnarketa sustatzeko artearen adierazpen-indarraz baliatzen direnak. Gobernutik azaldu dutenez, “biktimiko eta haiek egia ezagutzeko, justiziarako eta ordaina jasotzeko duten eskubidearekiko elkartasunetik, bakearen kultura sustatzea eta bizikidetzarako eta adiskidetzarako

prozesuak bultzatu nahi ditugu, elkarriketan, errespetuan eta irtenbideen bilaketa partekatuan oinarrituta”.

Jardunaldietan *Biktimen eta bakearen defentsa literaturatik* izenburuko mahai-inguruan Gabriela Ybarrak, Luis Gardek eta Ion Arretxek parte hartuko dute Iruñeko Baluartean, ostegunean, 19:30ean. Euren azken lanari, beren esperientziari eta artetik eta literaturatik giza eskubideen defentsari egiten dioten ekarpena ikusten duten moduari buruz hitz egiten dute. Aingeru Epaltza kazetari, idazle eta itzultzailea izanen da moderatzailea.

## Kantari datoz

**L**akuntzako kultur etxea bete-ta zegoela, Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdi-dietan bigarrena ospatu zen igan-dean. Oholtzatik Iruñeko Sandu-zelai auzoko bi talde, Lakuntzako beste sei eta herriko bikote bat ari-tuziren. Makina bat estilotako eus-karazko kantu ezagunen bertsi-ak abestu zituzten. Lakuntzako txi-kien lau taldeak eta Sanduzelai-ko batek karaoke modura aritu ziren eta, gainontzekoak, zuzeneko musika lagunduta. Talde bat zuhaitz batzuen laguntzaz atera zen oholtzara, kolorezko jantzie-kin besteak, koreografiak ere egin zituzten agertokian, guztia jende-



aren gozagarri. Jaialdi animatua-ren ondoren guztiek diploma eta goxoki bana jaso zuten.

Saio ederra izan zen. Eta hala izatea espero da hurrengo bi jaial-diak, Lesakan larunbatean eta Burlatan apirilaren 1ean. Guztia despeditzeko jaialdi nagusia Tafal-lan ospatuko da, apirilaren 29an.



## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 20%	euria: 90%	euria: 25%	euria: 30%	euria: 25%	euria: 55%	euria: 15%	
Min: 3 Max: 11	Min: 4 Max: 15	Min: 5 Max: 12	Min: 6 Max: 12	Min: 6 Max: 13	Min: 6 Max: 14	Min: 6 Max: 15	

## : temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	22	4	3.2
Etxarri A.	21.5	0.5	4.7
Altsasu	21	2.5	7.1
Aralar	14	-2	4.2
Urbasa	-	-	-

## : ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
28	3	11	19

# EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

**Etxe pasiboetarako egokia**  
s 9000

**IKD** Isolamendu nukleo indartsua

**STV** Beirak lehorrean jarrita

**Aperteko azala koloreztatua**

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua  
Lacturale: esneki lotea  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan  
Magna Gurpea: 2 sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10  
Lacturale: esneki lotea  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan  
Magna Gurpea: 2 sarrera

# >> 11 galdera

Eduardo Brun eta Raul Serrano

Brun forjakoak

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



**1. Saharan egon zarete. Zertan?**  
Rabounin egonginen, bi aste inguru. Berez ez da kanpamentu bat. Saharako administrazio gune bat da, bertan azoka, ospitalea eta Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) guneak daude –janaria banatzeko biltegiak, kamioiak, eta abar-. Soldadura ikastaroak eman ditugu, baita hainbat pieza produzitu ditugu ere; eskailera batzuk, lanerako eserlekuak...

**2. Norekin joan zineten?**  
Saharako administrazio gunean bi GKEk lan egiten dute: Iruñeko ATTFSF eta Frantziako Triangle. Iruñeko gurekin harremanetan jarri zen eta soldadura ikastaro bat egiteko eskatu zigun.

**3. Ikastaroak interesa piztu zuen?**  
Hogei bat pertsonen parte hartu zuten, bi txandatan. Gazteenek 20 urte izanzen zituzten eta zaharrek 50 inguru. Oso gustura egon ziren. Inkestak egin zituzten eta denek 9 eta 10 baloratu zuten. Esaten zuten praktika gehiago egin nahizutela, irakasle horiekin ikastaroarekin jarraitu nahi zutela... Soldatzen badakite, baina gehiago behar dute.

**4. Zergatik egin zuten ikastaroa?**  
Bertako langileak dira, GKEek duten guneetan lan egiten duten sahararrak dira. Aurretik soldatzen zekiten, baina oso gutxi. Kontuan izan behar da kamioi bat konpontzen dutela, eta bertako errepedeetan ibili ondoren, hama-bost bat egunetan dagoeneko apurtzen dela berriro. Beraz, ikasi behar zuten hobe soldatzen kon-

pondutakoak gehiago irauteko. Gutxi gorabehera soldatzen zekitenekin produzitzen hasi ginen; besteekin, hutsetik hasi ginen. Kuban ikasi omen dute askok, hitzarmen bat zutelako.

**5. Ikasitakoa praktikan jarriko dute?**  
Bai, dudarik gabe. Oso pozik gelditu ziren, gogoz. Gehiago ikasi nahi zuten. Hangozuek soldatzen dakite, baina oso azkar egiten dute, ez dute ongi soldatzen. Hori falta zitzaien.

**6. Materialak, tresneria eta abar zuek eraman zenuten?**  
GKEek erositako materiala eta tailerlean aritu ginen. Tresneria ere erosi zuten, baina oinarritzko gauzak dira, ez dute eskuadrarik ere. Materiala berria erosten zuten baina iristen zenean burdina tolestuta eta oxidazioz beteta zegoen. Harrigarria zen. Guk gure segurtasun materiala eraman genuen bakarrik.

**7. Nola bizi dira?**  
Gu gune horretan geunden eta kanpamentuak ondoan zeuden, baina ez geunden bertan instalatuta. Beraz, ez da nahikoa bene-koa errealitatea ezagutzeko. Iku-si genuena da ez dutela ezer, oso gutxirekin bizi direla. Lurzorua lurra, harea eta harria da. Ez dute iturriko urik eta orain elektrizitatea jartzen hasi dira. Oso prekarioa da. Kableak lurretik daude eta txoko batean lurrean harri batzuk ikusten dituzu eta kableak bertatik pasatzen direlako da, kotxeak gainetik ez pasatzeko. Eta, aldez,

dutena ematen dute. Oso jende atsegina eta jatorra da, eta oso lasaia dira.

**8. Nola zen zuen egunerokotasuna?**  
Gune horretatik tailerrera eta tailerretik gunera. Segurtasuna oso handia da duela urte batzuk bi edo hiru boluntario bahitu zituztelako. Beti norbaitekin joaten ginen. Sahararrak kontratatzen dituzte txofer moduan, guk ezin genuen gidatu. Oso erraz galdu zaitezke bertan, dena berdina delako. Haimak, etxetoak eta harea. Ostiralean eta larunbatetan dute jai eta ostiralean kanpamentu batera eraman gintuzten haima batera tea hartzera, baina, larunbatean berriz lanera, denbora aprobetxatu nahi genuelako. Segurtasuna gehiegizkoa dela iruditzen zitzaigun, nahiz eta normala izan.

**9. Esperientzia polita izan da?**  
Kontrolarena kentzen badugu, oso polita. Politena da dakizuna behar duen jendea irakustea. Badakizulako erabiliko dutela. Aprobetxatuko dutela.

**10. Itzuliko zarete?**  
Gustatuko litzaiguke. GKEak ikusi beharko dute zer iruditzen zaien. Soldatzen dakiten arren, oinarritzkoena egiten dakite. Beraz, makinaria berria eramaten badute, gu joateko prest gaude.

**11. Zuek zerbait ikasi duzue?**  
Oso gutxirekin bizitzea posiblea dela. Iturriko urik gabe, basamortuaren erdian, eta beti irribarrea ezpainetan dute. Hemen keaxte-gatik keaxten gara. [+guaxe.us](http://+guaxe.us)

## Gaurko menua

Mahai-zapiak  
Txartelak  
Menu kartak  
Komandak  
Kopak  
Edalontziak  
Ezpainzapiak  
Erakustegiak

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus